

Zahar etxeak Emakume eta langileen duintasuna jokoan



- **Iñigo Mujika**, eliteko kirol entrenatzailea «Urteek efizientzia mekanikoa ematen digute»
- **Oporrak Euskal Herrian** Bigarren familiaren onurak Sahara eta Txernobilgo haurrentzat
- **Miguel Sánchez-Ostiz** 36ko Gerrak gaurko gizartean duen eraginaz, *El Escarmiento* liburuan
- **Hendaia**ko ikastola Herriko Etxeko barne liskarrek eraikin berriaren proiektua oztopatu dute
- **Ihesi** Iruñea, euskarari lotutako karrikak



Literatura eta memoria

Iritziak: **Leonardo Cecchini** Italia • **Stefanie Lehner** Irlanda

Mahai-ingurua: Mikel Ayerbe • Iratxe Retolaza • Juanjo Olassagarre





Azaleko argazkia:
JUAN CARLOS RUIZ/
ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko uztailaren 21a, 2.378. zenbakia

ASTEKO GAIA

SAHARA ETA TXERNOBILGO HAURRAK Zapalduak, gutxietsiak eta borrokan. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 4

PERTSONAIA

IÑIGO MUJICA: «Kontua da arerioa baino urrats bat aurrerago joatea, ahal den maila gehienetan».
MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIK

SAHARA ETA TXERNOBILGO HAURRAK Udararen Euskal herrira, indarberritzera. IURE EIZAGIRRE / 14

IRITZIAREN LEIHOA

ERRETRETAKO PENTSIOAK AUZITAN

BALAREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18

KOMUNIKAZIO ESPERIMENTUAK

EDORTA ARANA / 19

EUSKALGINTZAREN GIZARTE KAPITALA

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA / 20

GORA PRO NOBIS

ASISKO URMENTA / 17

BERTSO BERRIAK

Lan hitzarmenak. AITOR SARRIEGI / 19

TXANDAN

(D)uda. ITXARO BORDA / 20

ERDIKO KAIERA

EUSKAL MUSIKA ESZENA Negozioa krisian, sorkuntza puri-purian. MYRIAM GARZIA / 21

LITERATURA

IGOR ESTANKONA / 25

DENBORA-PASAK

ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 26

ALEA

Kaleko arteak zero, lur eta itsasoaren konkistan.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 27

IHESI IRUÑEA

Euskaldunen hiri buruzagia.

KIKE DIEZ DE ULTZURRUN / 28

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

JOXERRA AIZPURUA / 32

LANDAREAK

JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA

NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

MIGUEL SÁNCHEZ-OSTIZ: «Gerra zibila ez da iraganeko gaia».
JOSU CHUECA / 36

HENDAIKOA IKASTOLA Leialtasuna agintean dagoenaren arau alda daiteke. MIKEL ASURMENDI / 40

“EUSKARAREN BERRESKURATZEA” LIBURUA Euskarak hezkuntzan muturra sartu zueneko. IURE EIZAGIRRE / 44

EUSKARA ALBISTEAK

ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA

JUAN MARI ARREGI / 46

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA

Eta Bilduk lortu zuen Gipuzkoako errauskailua gelditzea.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 47

MALTZAGATIK

XABIER LETONA / 50

ZAHAR ETXEETAKO LANGILEAK

Zapalduak, gutxietsiak eta borrokan

Azpiktratatutako langilea, erabat desaututako sektore feminizatuan. Sexismoak mailakatutako lan munduan azken kate-begia dira zahar etxeetako langileak. Irabaziak helburu bakar dituzten enpresek zapalduak eta arduradun nagusi diren administrazioek ez-ikusiak. Baina grebarekin eusten diote emakume eta langileen duintasunari.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

ZAHAR ETXEETAKO langile gehienak emakumeak dira (gerokultoreetan %90 inguru, medikuetan erdi eta erdi). Emakumeek historikoki etxean bete duten zaintza lana erresidentzian betetzen dute. Lan mundura atera da zaintza, baina etxeko baldintzak mantentzen direla salatu du Iñigo Zubeldia Gipuzkoako ELAko kideak: “Hasteko, erabateko disponibilitatean dago oinarritua. Urte osoko lanaldia izanik ere, langile gehienentzat eguneko lanaldia mugikorra da. Egun batean sei ordu eta erdi egiten dituzte, hurrengoan hiru, hurrengoan zazpi, hurrengoan bederatzia... Eta bada beste kopuru handi bat lanaldi partziala duena: %60ko lanaldia dute eta hortik lanaldiaren %100era, zuzendaritzaren arabera, txikiea bailiran deitzen zaie, lanaldia luzatu-moztuz. Pentsa horien erretiroa nolakoa den, askotan kotizazioak ez baitzaizkie igozen orduak igo arren. Desautzea erabatekoa da sektorean”. Zubeldiak ohartarazi du ez dela kasualitatea: “Gizonezkoontzat ez dago horrelako eredurik”. Ordutegiaz gain, lan kargak izugarriak direla azaldu du: “Ez da teknologian inbertsiorik egiten. Duela 50 urte baserrietan bi emakumeren artean egiten zen lana, garbitzeko zaharra altxatzea, egun erresidentzietan sistema berarekin egiten da. Dena eskuz, pisu guztiak eskuz altxatzen dira...”. María Eugenia Nagore, Ariznabarra zahar etxeko (Gasteiz) langileak kontatu du gerokultorea dela zaharrari arreta zuzena ematen diona: “Zaharraren autonomia mailaren arabera, gerokultoreak laguntzen dio altxatzen, garbitzen, bizarra egiten, atzazalak moztzen, janzten, duxatzen, aktibitateak burutzen... Lan handia da eta neketsua, fisikoki gogorra”. Ondorioak bistakoak izanik

ere, lan gaixotasunik ez dela aintzat hartzen salatu du Zubeldiak: “Denek bukatzen dute bizkarrezurretik gaizki, belaunak eta ukalondoak izorratuta, eskumuturretatik operatuta, baina laneko gaitza dela onartua izatea nahi duenak epaitegira jo behar du. Lan Ministerioak oso argi dauka pilotuentzat zer lan gaixotasun dauden, baina emakume azpiktratatatu esplotatuentzako katalogoan ez da ageri inolako gaixotasunik”. Parametro matxistetan oinarritutako negozio eredu dela azaldu du: “Emakumeak dena jasaten du’ da bere abiapuntua”. Iduzki Soubelet Iparraldeko LABeko kideak gizartera hedatu du ardura: “Egiten duten lana garrantzi sozial handikoa izan arren, ez dago baloratua”.

Gestio ereduak

Euskal Herrian badira gestio publikoko zahar etxeak (erakunde publikoek gestionatuak eta langileak funtzionarioak direnak), kontzertatuak (ohe denak edo gehienak diru publiko ordainduak baina gestioa enpresa bati utzia eta langileak azpiktratatatuak) eta erabat pribatuak. Zahar etxe publiko gehien mantentzen dituzten herrialdeak Zuberoa, Nafarroa Behera, Lapurdi eta Araba dira. Soubeletek azaldu duenez: “Iparraldean zahar etxe publikoak Kontseilu Orokorrarenak dira eta kasu batzuetan herriko etxeak ere laguntzen du. Bertako langileak funtzionarioak dira. Zahar etxe pribatuak ere badira”. Ruben Espino Arabako ELAko arduradunak herrialdeko argazki orokorra azaldu digu: “Asko dira erabat pribatuak (Caser da hauetan handiena), kontzertatuak dira beste batzuk (Goizalde, Ariznabarra), eta publikoak ere badira, langileak funtzionario direnak (adibidez San Pru-



dentziokoa, edo Txagorritxo ondokoa). Baina zoritxarrez pribatizazioa etengabekoa da eta publikoen barruan ere lan eta zerbitzuak azpikontratatzeko ari dira”. Nafarroan bi publiko (El Vergel Iruñean eta Santo Domingo Lizarran, biak Nafarroako Gobernuarenak) eta beste hainbat municipal daudela kontatu digu Lorea Luzea Nafarroako LABeko kideak: “Baina hauetako batzuetan bertako langileen baldintzak ez dira udaleko langileenak. Gainerako zahar etxeak pribatuak dira, plaza batzuk kontzertatuta dituztenak”.

Kontzertatuen lurraldeak Gipuzkoa eta Bizkaia dira. Zubeldiak pribatizazio prozesua kontatu du: “Duela 20 urte erresidentzia gutxi zegoen Gipuzkoan eta denak funtzionarioak edo laboralak ziren. Egun, ordea, gehienak azpikontratatuak dira. EAJ nagusi zen Aldundiak prozesua hasi zuen eta udaltxe gehienek jarraitu egin zioten bere irizpideei. Erresidentzietakoa izan da administrazioaren barruan garbitzaileekin eta sukaldariek batera gehien pribatizatu den sektorea”. Gestioa pribatizatzeak langileen lan baldintzak erabat txartzea ekarri duela salatu du: “Prekarietatea izugarria da. Gipuzkoan plazen %90 kontzertatua da, eta gainera pribatuetan eskaera jaitsi egin da krisiaren eraginez. Ia erabat publikoak diren bi zentro daude, langileak edo funtzionario edo laboralak direnak (San Lazaro Elgoibarko Udalarena eta Eibarko San Andres Foru Aldundiarena). Hauetan asteburuko eta gauetako lana azpikontratatuta dago”. Bizkaian plazen erdia baino gehiago kontzertatuak dira.

Kontzertazioa: negozio segurua

Zahar etxe kontzertazioa egiteko erabili den eredu salatu du Gaizka Miguel Bizkaiko ELAko kideak: “Bizkaiko Foru Aldundiak

Gipuzkoan, enpresako hitzarmena sinatu ez duten 12 zahar etxeetatik 8k greba mugagabeen jarraitzen dute.

lurra erosten du, zahar etxea eraiki, makinaria osoa jarri, zaharrak bertara bideratu, eta gero enpresa bat kontratatzen du berau gestioatzeko. Dena eginda ematen dio, eta irabaziak ere ziurtatuta dauzka”. Zubeldiak ere salatu du enpresa hauek ez dutela inolako arriskurik hartzen beregain, eta horregatik “lehia handia egon da Gipuzkoan erresidentzia bat edukitzeko, irabazi marjina handia zutelako”. Nagorek Gasteizko Ariznabarra erresidentziaren sorrera azaldu du: “Erresidentzia 2001ean ireki zen. Kontzertazioarekin. 49 urterako negozioa bermatu zitzaion: Aldundiaren plazarik osorik kobratzea, baina hutsik dauden plazen %60 ere kobratzea, urtero KPIaren igoera aplikatuz. Akats handia izan zen kontzesioa baldintza hauetan ematea. Diru publikoa harrapatuta daukate, enpresak inoiz ez du dirurik galduko. Ariznabarra emaitza ekonomiko onak izaten ari da, Espainiako Estatu osoan lan baldintza onenak dituen langileak gu izanik ere”.

Lan soziala vs “bizitzaren negozioa”

Enpresaren neurri eta izaerak lan baldintzetan eragin zuzena dutela berretsi digute sindikatuetako ordezkariak. Zubeldiak dionez, “antzematen da batzuetan (batez ere txikietan) dirutik harago begiratzen dela, lan giroan, tratuan... eta beste handi batzuetan diru bila dabilta eta kito. Negozioa da helburu eta horiek ez dute legez dagokien langile kopurua baino minutu bat gehiago ere ematen. Aldiz, izaera sozialeko enpresa batzuek (Gurutze Gorriak esaterako) beste edozein enpresekin alderatuta langile bikoitza dute, ez dutelako irabazi asmorik. Adibide argia da erakunde arduratsu batena, langileen ongizatea eta zerbitzuaren kalitatea lehenesten duena”. Espinok Arabako Caserren adibidea jarri du:

ZAHAR ETXEETAKO LANGILEAK

“Badira zerbitzu anitzeko enpresak, diru bila doazenak. Caser, esaterako, erresidentzietan, aseguruetan, bankuetan ari da eta negoziatzerakoan egoera gaizki dagoela esaten dizute, eta beren kontuak aztertuta ikusten da asistentziako negozioak erabat errentagarri zaizkiola eta aseguru eta banku negozioetan dituztela galerak. Azkenean zahar etxeetako langileek ordaintzen dute asistentziarekin zerikusirik ez duten enpresek egindako zuloa. Enpresa txikiak edo behintzat sektore bakarrekoak direnek beste funtzionamendu bat dute. Baina gaur egun zaila da erreforma probestu nahi ez duen enpresa bilatzea”. Caser EAE osoan dago zabaldua eta Espainiako Estatuan 20 zahar etxe ditu. Sarquavitae (Mapfre erosi zuena) eta Sanitas ere EAEn handienetakoak dira. “Hauek zuzenean diruagatik datoz” dio Zubeldiak. “Perfektuki engrasatutako makinaria dute, kultura matxista euren enpresa proiektura eramaten dute eta gutxiengo baldintzak ematen dituzte. Administrazioak pribatizatzen hasi ziren unetik, diru asko duten enpresa indartsuek negozioak ireki dituzte sektore honetan, gure biziarekin negozioa egin ahal izateko. Bizitzaren negozioa da”. Bizkaian aipaturiko hiru hauen gainetik Urgatzi taldea eta Igurco taldea dira nagusi, erabakimen handiena euren dute.

Iparraldean eta Araban, aldiz, enpresak txikiagoak dira. “Iparraldekoak ez dira enpresa handi-handiak. Publikoak dira zahar etxe handienak. Pribatuaren artean badira helburu lukratiboak dituzten enpresak eta helburu lukratiborik gabekoak”, dio Soubeletek. Espinok Arabako ezaugarria horixe dela azpimarratu du: “zahar etxe gehienak txikiak dira, ohikoenak 8-10 zaharreko etxebizitza komunitarioak dira. Beste 12 bat egoitza ertain daude, 30-40 plazakoak. Zahar etxe handienak (150 plaza ingurukoak) Gasteizen daude”.

Erabiltzaile menpekoagoak langile kopuru berarentzat

Hegoaldean Aldundiek enpresei azpikontratazen dizkien zahar etxeen zerbitzuak nolakoak izan behar duen arautzen du zerbitzuen katalogoak. Bertan zerrendatzen da zer den zaharrei eskaini behar zaiena. Eta zerbitzu hau emateko gutxieneko ratio edo langile kopuru bat dago (urtean zaharrek zenbat minutuko zaintza behar duten zehazten duen batez bestekoa, 1995eko Eusko Jaurlaritzako dekreto



Elizondoko Joaquín Iriarte zahar etxeko langileek duela hilabete batzuek egindako kontzentrazioa, Idea-innovacion enpresari bertako hitzarmena berritzeko eskatuz.

ondorioz zahar etxe batean sartzeko orain askoz okerrago egon behar da. Beraz, orain zahar etxeetara doazen pertsonak askoz menpekoagoak dira. Nabarmena da. Ratioak ez dira aldatu, eta langileentzat lan karga askoz handiagoa da, askotan ez da formakuntzarik ematen eta lan baldintzak okertu dira”. Luzeak azaldu duenez, “Nafarroako Gobernuak kontzentrazio plana aldatu du eta 2014an aplikatzen hasiko direla aurreikusten dugu. Honekin erraztasun gehiago emango zaizkie enpresa pribatuei: sukaldari eta garbiketa ratioak jaitسي egingo dituzte eta zahar etxeetako erabiltzaileen perfil berri bat asmatu dute: ez menpekoa baina bazterketa egoeran dena. Adibidez, jada zahar etxeetan sartu dituzte alkoholikoak diren pertsona heldu batzuk. Ratio berekin erantzuten zaila izateaz gain, langileek ez dute formazioz jaso kasu hauei erantzuteko”.

Aldundien ardura

Hegoaldean ardura osoa Aldundiarena dela oroitarazi dute eta Zubeldiak kritika orokorra azaldu du: “Erakundeak kostua jaisteaz bakarrik arduratu izan dira, ez ematen ari garen zaintza ereduaz”. Miguelek Bizkaiko Aldundiarekin biltzerik ere ez dutela lortzen azaldu du: “Negoziazio prozesuan hiru bilera eskatu dizkiogu Foru Aldundiari eta ez digu erantzun ere egin. Batzar Nagusietako alderdi denekin hitz egin dugu eta denen arteko akordio instituzionala sinatu da (EAJ barne), Aldundiari eskatuz langileen aurreko hitzarmeneko baldintzak bermatu ditzan —hau jada ez da betetzen ari—, langileen baldintzak hobetu daitezen eta hau konplitzen dela bermatzeko prozedurak martxan jartzeko”. Espinok Arabako Aldundia atzeraka doala uste du: “Gasteiz gizarte zerbitzuetan eredu

María Eugenia Nagore, Ariznabarrako langilea: “Hiru urteko greba gogorra izan zen baina merezi zuen”

ARIZNABARRA da Espainiako Estatuan lan baldintza onenak dituen zahar etxea. Langile borrokaz lortu eta defendatu dituzte, María Eugenia Nagore bertako langileak kontatu digunez: “2001ean erresidentzia ireki zenean, orain baino askoz langile gutxiago ginen eta gerokultoreen soldata ez zen 100.000 pezetara (600 euro) iristen,

urtean 1.800 ordu lan eginda. Zortzi hilabete iraun zituen greba egin genuen. Foru Aldundiak 17 langile gehitu zituen eta bide horri jarraituz 2003an akordio ona itxi zen bost urterako, %21 gehiago hazi zen soldata eta lan baldintza txukunak genituen.

Baina enpresak esan zuen ez zuela paktua beteko, eta hartzen zuten jende berria beste soldata mailaketa batekin sartzen zen. Horren aurrean ia hiru urte iraun zituen greba egin genuen. Greba oso gogorra izan zen. Langileen batasuna funtsezkoa izan zen, familiaren babesa ere ezinbestekoa izan zitzaigun eta ELAren elkartasun kuxarik gabe ezinezkoa izango zen aurrera eramatea. Langileok funts bateratu bat ere jarri genuen. Asanbladak egiten genituen astero, benetan gertatzen ari zena adierazteko. Mapfre enpresak ez zigun inoiz enpresa barruan biltzen utzi, ezta kartelak jartzen ere. Arazoan erabakia hartu



Ariznabarra erresidentzian 140 zahar bizi dira eta 160 langile inguru ari dira lanean, 155 emakume eta 5 gizon.

tzen, gure soldata familiarako ‘laguntza’ dela eta noski, guk oso gaizki hartzen genuen hori. Enpresaren prepotentziak ere gure erantzuna piztu zuen. Oso gogorra izan zen, baina merezi izan zuen. Emakumeak konstanteak izan ginen, geureari eutsi genion. Lortutako paktuarekin 2012an gerokultoreak 1.690 euro gordin irabazten zituen.

Geroztik Sarquavitae-k erosi zion enpresa Mapfren. Hitzarmen bat nahiagoko genukeen arren, jabego aldatetarekin eta uztailearen 7aren ondoren zer gerta geundenez, 2013rako paktua hitzartu dugu. %2 igo dira soldatak, 1.600 ordu lan egiten dugu urtean eta azpikontratututa zegoen sukaldeko langileria orain enpresako paktuko baldintzekin sartu da Ariznabarrako lan taldean. Badirudi alde guztiek borondate ona dugula, eta adostu dugu urrian bilduko garela hitzarmen bat egiteko”.

behar zuena Aldundia zen, horregatik gure manifestazioak Aldundia rena aurrean egiten ziren eta ez zahar etxean. Bilerak pila egin genituen alderdi guztietako politikariekin, eta denek antzera jokatu zuten: boterean zenak ez gintuen hartzen, behean zeudenek zerua agintzen zigiten... Enpresak esaten zigun ez gintuela uler-

moduan ikusarazi zuen Cuerdaren garaitik, etengabeko atzerakada egon da, bai Aldundian EAJ egon denean, bai orain PP egonik. Gizarte zerbitzuak eraisten ari dira, ezkutuko ekonomia bultzatzen, hitzarmendun eta formaziodun langileak ezkutukoez ordezkatzeten... Kostuak gutxitzea da axola zaien bakarra. Kasu esanguratsu bat bada: Araba klinikak zeraman hirugarren adineko arretaren zati handi bat Miñanora bideratu du Aldundiak, eta Miñanon lan talde osoa Aldi Baterako Laneko Enpresa bidez eramaten da. Bertako baldintzak penagarriak dira eta Aldundiari bost axola zaio”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egoera honi buelta emateko asmo argia azaldu duelako gustura da Zubeldia: “Badakigu, bi urtean ezin zaio ereduari buelta eman. Eredua oso

kontsolidatua dago. Ikusi beharko da hurrengo urteetan Aldundiak azaltzen duen borondatea zertan gauzatzen den. Langileei dagokionez, gustura gaude hartu duen bidearekin. Lehen erakundea izan da azpikontratutako langileak bere ardura direla esan duena. Uler-tzen dugu ez dela erraza urratsak ematea, baina bide onetik doaz”.

Hitzarmenak

Desarautzea da nagusi sektorean. Lan baldintzetan alde handia dago enpresa batetik bestera. Era guztietako egoerak aurki daitezkeela dio Espinok: “Badira garbitzaile gisa kontratatu eta gerokultura lanak egiten ari direnak, eta aldearantziz, denetik egiten duten gerokultoreak (garbitu, lisatu, otorduak prestatu...). ‘Edozer-tarako neskame’tzat kontratatzen dituzte”.

Iparraldean, Nafarroan eta Araban estatuko hitzarmenak aplikatzen dira. Soubeletek salatzzen duenez, “Iparraldean ez dugu egiturarik hemengo hitzarmenak egin ahal izateko eta horrek arazo handia sortzen du langileei begira, bertako errealtateari erantzutea bilatzen baitugu”. Lurralde hitzarmena lortzeko giltza enpresen neurria dela azaldu du Espinok: “Zergatik ez dugun probintzialik Araban? lortu ez dugulako, edo gai izan ez garelako. Zahar etxe handiak dauden herrialdeetan errazagoa da sindikatuak komiteak antolatzea eta handi horien bultzadarekin lurraldeko hitzarmena lortzea. Araban hiru-lau zahar etxe handi bakarrik baditugu, eta enpresa horietan lan hitzarmena lortu badute, hauek ez dute probintzialaren beharrik, eta txikiak antolatzea, berriz, askoz zailagoa da”. Luzeak azaldu du hitzarmen desberdinak erabiltzen direla sektorean: “Nafarroan zahar etxeak sortzen hasi zirenean batzuek ostalaritzako lan hitzarmena hartu zuten, sektore hau ez zegoelako batere garatua. Egun, batzuek ostalaritzakoa mantentzen dute eta beste asko Estatukoarekin ari dira”. Langileek indarra duten enpresetan (normalean handietan) enpresa hitzarmenak eta akordioak egiten dira, baldintzak hobetzeko.

Bizkaian eta Gipuzkoan lurralde hitzarmenak ere badira. Espainiako Gobernuak uztailaren 6an indarrean jarritako erreformak zertan eragingo dien azaldu du Zubeldiak: “Orain arte lurraldeko hitzarmenaren eta enpresa barruko hitzarmenaren artean, probintziala betetzea derrigorra zen, eta enpresakoa ezin zen txarragoa izan lurraldekoa baino. Hori aldatu egin da. Orain enpresakoak txartu dezake lurraldekoa eta nagusitasuna du haren gain. Honen aurrean, ELArentzat derrigorrezkoa da hitzarmen honetan bi pausoak ematea: lurraldekoa sinatzea eta hori berbera enpresara eramane eta enpresako bihurtzea. Ez enpresan negoziazio propiorik eginaz, lurraldekoa berretsiz baizik”. Gipuzkoan sektoreko enpresari ordezkaritza Laresek (%50) eta Adegik (%50) dute. “Ezaguna den bezala Adegik ez da inongo hitzarmen sektorialik sinatzen ari. Erreformare-

Datuak

- Gipuzkoan: 60 zahar etxe daude. 4.800 langile eta 5.057 zahar.
- Nafarroan: 75 zahar etxe daude. 3.977 langile eta 6.192 zahar.
- Araban: 75 egoitza daude. Hauetatik 20 etxebizitza komunitarioak (14 pertsonatik behera bizi direnak). 1.000 langile inguru eta 3.499 zahar.
- Bizkaian: 260-320 egoitza daude. Hauetatik 60-70 zahar etxeak eta gainerakoak etxebizitza komunitarioak. 4.500 langile eta 6.000 zahar daude.
- Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan: 61 zahar etxe daude.

Lan baldintzak

- Nafarroan: 714-1.276 euro artean dago gerokultoreen soldata gordinaren batez bestekoa, enpresatik enpresara asko aldatzen baita egoera.
- Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan: 1.161 euro garbi jasotzen dituzte gerokultoreek, alegia, gutxieneko soldata.
- Araban: gerokultoreek 956 euro gordin eta 1.792 ordu urtean.
- Bizkaian: Soldata taula desberdina dute zahar etxeetako eta etxebizitza komunitarioetako gerokultoreek. Zahar etxeetakoek 1.284 euro gordin jasotzen dituzte eta medikuek 1.785 euro gordin.
- Gipuzkoan: Gerokultoreek 1.100 euro gordin eta 35 orduko lan astea. Medikuek 2.174 euro gordin.
- Espainiako Estatuko hitzarmenak arautuak: gerokultoreak 900 euro gordinen gutxieneko soldata du eta 1.799 lan ordu urtean.

kin Estatukoa aplikatzea da bere apustua. Lehen aldiz prozesu ezberdin bat gertatzen ari da: Adegiren kupulak sinatzen ez duen hitzarmen probintzial hori bera (Foru Aldundiak, ELA, LAB, CCOO eta UGTk proposatutakoa) Adegikoak diren %85,2 enpresetan (12 kenduta gainerakoetan) enpresako hitzarmen gisa sinatzea lortu dugu. Horrek bi gauza esan nahi ditu: kupuletan beste interes batzuk daudela, enpresek konpartitzen ez dituztenak. Eta kupulek errealtatean ez dutela inor ordezkatzen. Guretzat garrantzitsua da batasun negoziatzailea mantentzea, eta enpresa guztietan gauza bera negoziatzen ari gara. Badakigu ez dela lurraldeko hitzarmena egiteko bide klasikoa baina errealtatean ez daukagu beste biderik”. Enpresako hitzarmena sinatu ez duten 12 hauetatik 8 greba mugagabeen daude. Aldundiak hartutako erabakiari esker, erreformak bide eman arren 12 haue- tan ere ez dela Estatuko hitzarmena aplikatuko espero du Zubeldiak: “Enpresaren batek lan baldintzak jaisten baditu, Aldundiak tarifa ere proportzionalki jaitsiko diola iragarri du. Benetan txalotzen dugu erabaki hau, ez baita onargarria enpresen irabazi portzentajea igotzea langileen baldintzak jaitsiz”.

Bizkaian lau patronal daude: Gesca taldea da nagusi eta Laresek %20-30 du. Negoziazio mahaian CEBEC (Gesca bere barruan dago) da patronal guztiak ordezkatzen dituen eta Gipuzkoan Adegik duen jarre-

raren oso antzekoa duela dio Miguelek: “Bizkaian hitzarmen probintziala 2012ko abenduaren 31n bukatu zen, baina bertan ultra-aktibitatea adostuta utzi genuen, beste hitzarmen bat adostu arte indarrean egon dadin. Horrek ez du esan nahi enpresari batzuek legearen beste interpretazio bat egin- go ez dutenik, hitzarmenean onartutakoa betetzeari utziz. Egungo negoziazio kolekti- boan patronala araudi berriak eskura jarri dizkion arma guztiak erabiltzen ari da. Antolatze-ko eta erantzute-ko gaitasunaz bakarrik mantendu edo duinduko ditugu langile- hauen baldintzak”. ■



PERTSONAIA

IÑIGO MUJICA

«Kontua da arerioa baino urrats bat aurrerago joatea, ahal den maila gehienetan»

Fisiologo da, ikerlari, aditu, eta goi mailako kirolarien entrenatzaile. Goi mailako zientzialari da, mailarik goreneko kirolgintzan.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco



Izaki bizidunen ehun eta organoen funtzionamenduaren ikasketa da fisiologia. Nola lan egiten du goi mailako kirolari baten organismoak?

Goi mailako edozein tresnak bezala: zehaztasun handiz! Gizaki arruntak funtzionatuko lukeen modu berean funtzionatzen du, baina askoz ere balio, zehaztasun eta gaitasun handiagoarekin. Goi mailako errendimendua, ordea, ez da bakar-bakarrik genetikaren ondorio, ingurumenak ere eragiten du, moldatzen du errendimendu hori. Genetikarik onena izanik ere, landu ezean, ez zara txapeldun izango. Eta alderantziz, entrenatu eta entrenatu arren, dohain berezkorik ez baldin baduzu, nekez iritsiko zara txapeldun izatera. Bien beharra dugu goi mailako kirolari izatekotan.

Nola uztartzen dira goi mailako kirola eta kirol herrikoa?

Maila apalean kirola egiten hasi eta iristen da asko goi mailara, dohainak eta prestakuntza lagun dituelarik. Inor ez da munduko txapeldun edo Europako txapeldun jaiotzen. Bi mundu ezberdin dira goi mailakoa eta kirol herrikoa, bata ez du bestea kentzen. Bata da Joko Olinpikoetako maratoia, eta bestea, guztiz ezberdina –baina bateragarria, hala ere–, gure hiriburuetan egin ohi diren maratoieta batean parte hartzea, non bere burua prestatua duen edonork parte hartzen ahal duen. Biek dute lekua gaur egungo gizartean.

Goi mailakoa izan nahi izaten du kirolari herrikoia...

Baina ezinezkoa da. Besterik da nork bere dohainen eta adinaren arabera prestakuntza egitea. Prestakuntza, azken finean, denbora da, eta hala ere, dena delako kirolari horrek lor lezakeen mailarik gorena lor dezan, ez besterik. Guztiok nahi izaten dugu gure marka ontzea, hobetzea... Guztiz txalogarria zait hori: maratoia lau ordu eta erdian egin duen maratoilariak hurrengo batean lau ordu eta hoge minutuan egin nahi izatea 42 kilometroak guztiz arrazoizkoa da, ondo iruditzen zait. Baina horrekin batera, maratoilari horrek jakin behar du inoiz ez dela Martin Fizen pareko izango, ez dituela haren markak hautsiko. Edo Quebrantahuesos bizikleta lasterketa hamalau ordutan egiten duen txirrindulariak jakin behar du ez dela inoiz Miguel Indurain izango.

Prestakuntza denbora da, esan duzunez.

Konparazio batera, maratoi jakin bat prestatzeko, uda beharko duzu, baina maratoi bat eta bi eta hiru egin ahal izateko, urteak behar dituzu. Urteek efizientzia mekanikoa ematen digute, eta horrekin batera, abiadura zehatz batean gero eta modu ekonomikoagoan

Euskara

“Eneko eta Hektor Llanosekin, eta Ainhoa Muruarekin, euskaraz egiten dut beti, eta euskaraz besterik ez. Euskaltel-Euskadin, euskaldunekin –eta gehienak halaxe dira– beti euskaraz, nik haiei, eta haiek niri: badakite euskalduna ez ezik, euskaltzalea naizela. Zenbait txirrindulari euskaltegian ari zirela jakin dudan guztietan, esan diet: ‘Joan zaitze euskaltegira, baina nirekin ere euskaraz egin!’. Taldearen webgunea euskaraz dago, euskal taldea da gurea, baina euskalduna ere izan behar du”.

lehiatu ahal izateko gaitasuna. Alegia, orduko hamar kilometroko abiaduran lasterketa egiteko halako oxigeno kopurua kontsumitzen duen kirolariak, prestakuntza bidez lor lezake –eman dezagun, hiru urtean– abiadura hartan bertan korrika egiteko oxigeno kopuru txikiagoa erretzea. Kontsumoa txikiagotzea, alegia. Beste era batera esanda, ibilgailu batek gaur egun ehun kilometro egiteko zazpi litro behar baldin baditu, denborarekin –gure entrenamenduarekin–, zazpi litro ordez 6,2 beharko lituzke. Efizientzia mekanikoa eta gaitasun metabolikoa areagotzea da kontua. Gure gaitasun fisikoa hobetzeko modu garrantzizkoak. Entrenamenduaren bitartez lortzen dugu hori.

Entrenamendua da gakoa, berriro.

Badira pertsona batzuk efizientzia hobea dutenak, berez, sortzez. Genetika. Baina efizientzia hori, oro har, entrenamendu bitartez hobetu liteke. Askok ere ez, baina hobetu. Eta hobekuntza horrek, txikia izanagatik ere, eragin handia du iraupen luzeko kirol errendimenduan.

Uste genuen entrenamendua ez zela lehia aurreko prestakuntza besterik. Zuri irakurri dizudanez, ordea, batera datoz entrenamendua eta berrindartzea, eta era berean, hori dira doiketa, desentrenamendua eta, are, gehiegizko entrenamendua ere!

Eta elikadura, eta gehigarriak, eta altitudeko entrenamendua... eta beste hainbat elementu. Goi mailako entrenamendua gai erraza izango balitz, ez legoke unibertsitate ikasketarik, doktorego programarik, masterrik, federakuntza titulaziorik... Etxegintza ez da, besterik gabe, adreiluak bata bestearen gainean jartzea, ezta? Hori baino konplikatuagoa da, horregatik behar dira, etxea egitekotan, Arkitektura ikasketak. Askotan diot: iraupen luzeko entrenamendua ez da telekomunikazio ingeniariatza, ezta astrofisika ere, baina ezinbestekoak ditu ezagutza eta jakintza.

NORTASUN AGIRIA

Iñigo Mujika Anton (1968, Iruñea) Soin Hezkuntza eta Kirol Zientziak ikasketak eta bi doktorego ditu eginak, Giharren Ariketaren Biologian lehena, eta Ariketa Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan bigarrena. Igeriketa eta Triatlonoiko Goi Mailako entrenatzaile da, eta Euskaltel-Euskadi taldeko Fisiologia eta Entrenamenduaren arduraduna. www.inigomujika.com du webgunea eta etengabe baliatzen du bloga, ingelesez eta gaztelaniaz. “Hala ere, .eus domeinu berriak euskaraz aritzeko gogoaz berpiztu dit”. San Fermin ikastolako ikasle izana, euskaraz aurkeztu zuen bigarren doktore tesia.

Noizdanik dira beharrezko ezagutza eta jakintza hori? Kirol zientzia, esan dezagun.

Garai batean kirola ez zegoen orain bezain zabalduta. Gaur egun mundu osoak hartzen du parte, kirol guztietan ere! Mundu guztiak parte hartzen duelarik, gero eta zailagoa da inor mundu osoko kirolarietara gailentzea, hori da koska. Horregatik da zaila goi mailako kirolari bilakatzea, mundu osoan ari garelako kirolean, mundu osoan ari direlako futbolean, mundu osoan ari dira korrika... Beharbada, lehiakortasuna ez da neurri berekoa curlingean, herrialde gutxiak hartzen baitu parte horretan. Baina gainerakoan, ezinezkoa da munduan zeharo zabalduta dagoen kirol batean neska ala mutil bat ezerezetik azaltzea –goi mailako zientzialaririk gabe, entrenatzailearik gabe, elikadura aditunik gabe, psikologorik gabe...– eta inguruko guztiei irabaztea. Ezinezkoa da.

Goi mailako kirola zientzia da?

Ez da zientzia, baina badu zientziatik. Eta zientziak, kasu honetan, emaitza onak ziurtatzen ez baditu ere, “asmatzeko” aukera handiagoak eskaintzen ditu. Norbait iritzira entrenatzen badugu, huts egiteko aukera handia da oso. Nekez emango du bere onena lehiaketa egunean, adibidez. Zientziak entrenamenduaren prozesu osoa kontrolatzen laguntzen digu eta, prozesuaren ondorioz, emaitza ona sarriagotan lortzea: nahi dugun egun jakin horretan gure kirolariak maila gorena eman dezan lortuko dugu.

Maila gorena emateak ez du esan nahi, nahitaez, irabaztea. Jo dezagun, zientzia ehun ziklista batera –Itzulian nahiz Emakumeen Biran– laguntzen ari da. Ehun horietan nor gailendu behar da?

Bikaintasuna da helburu, baina maila guztietan. Esan nahi da, bikaintasuna behar duzula kirolariari dagokionean ez ezik, baita zuzendari, entrenatzaile, mekanikari, auto eta autobus gidari, elikadura aditu, bizikleta ekoizle, biomekanikari eta gainerako guztiei dagokionean ere. Ondokoak baino hobeak izaten saiatu behar dugu, denok. Bikaintasuna denoi dagokigu. Kontua ez da zure taldean beste inor baino txirrindulari hobeak izatea. Hori baino gehiago da.

Eta hala ere, maila horietan guztietan ere inor baino hobeak izateak ez dakar, ezinbestez, garaipena.

Zientziak aukerak ematen dizkigu, lagundu egiten digu, ez besterik. Ez da zientzia zehatz, zorionez. Bestela, kirolariak hartu eta laborategian sartuko genituzke, froga batzuk egin eta horien emaitzen arabera dominak



banatu: urrea, zilarra eta brontzea. Kito. Zorionez, hor dira beti lehiaketak, eta lehiaketan ohi diren ezuste eta “istripuak”. Nola lortzen du Osasuna futbol taldeak, noizean behin, Barçari irabaztea? Nola lortzen du Euskaltel-Euskadiko txirrindulari batek lasterketaren batean Nibali baino hobea izatea? Dena ez da zientzia, zorionez.

Irabazten denean, lanaren ondorio da emaitza. Irabazten ez denean, aldiz?

Irabazi zein ez, kirolariak bere gaitasunaren neurria eman duen ala ez aztertu behar da beti. Neurria ematen ez denean, derrigorra da azterketa sakona: entrenamendu plangintza, doiketa, azken orduko prestakuntza, elikadura, material hautaketa, kirolariaren urduritasuna...

Psikologia...

Zenbaitek uste du arazo psikologikoak direnean bakarrik jotzen dugula kirol psikologia, baina hurrik ere ez! Kirol psikologiak hainbat teknika eskaintzen dizkigu, eta arazorik ez denean ere lagungarri dira teknika horiek. Arazorik ez izateko erabili behar dugu psikologia, eta entrenamendua optimizatzeke. Errendimendua kirolariari dagokion mailakoa ez denean, horren arrazoia aztertzea dagokigu. Irabazten dugunean ere egin behar da azterketa, hala ere.

Uste nuen ospatu besterik ez zela egin behar orduan.

Ospatu, bai, baina aztertu ere bai. Irabazteak ez du esan nahi lasterketa perfektu egin dugunik, perfektu lehiatu garenik. Izan liteke, baina ez nahitaez. Huts eginda ere irabaz liteke. Igerian irabazi, azterketa egin eta esan dezakezu: “Ez da irteera ona izan, izan zitekeen bezain azkarra ez da izan. Bi ehunen jaitsi nezakeen nire denbora”. Hamar urte eman ditut Eneko Llanos prestatzen. Urte horietan lasterketa asko eta asko irabazi ditu

Alexander Serebryakov

“Mutil isila zen, jatorra. Ez genuen harremana

estutzeko aukerarik izan.

Aurkezpenean izan zen,

kontzentrazio batean ere bai.

Aurreko denboraldia oso berandu amaitu

zuen, gainerako txirrindulariak

baino astiroago ari zen. Gero, zenbait lasterketatan

parte hartzen hasi zen, gero eta hobeto zebilen,

ustekabekoa jaso genuen arte.

Honezkero jakingo du zer kalte egin

dion bere buruari, gure taldeari, eta txirrindularitzari oro har”.

Enekok, baina lasterketa perfektuak bizpahiru egin ditu. Galtzerdiak hautatzen ere huts egin liteke! Azkeneko kilometroan oinetan babak atera bazaizkizu —esate baterako—, galtzerdi horiek ez zirela egokiak esan nahi du, adibidez. Beti da zer ikasi, zer hobetu, eta horretan saiatzen ez bazara, arerioari zure mailara iristeko aukera ematen ari zara, eta kontua da arerioa baino urrats bat aurrerago joatea, ahal den maila gehienetan.

Nola jakin arerioa baino aurrerago ari zaren?

Hasteko, emaitzak dira neurria, emaitzek erakusten dizute arerioa baino aurrerago ari zaren ala ez. Horretarako, bistan da, beharrezkoa dira ikerketa eta garapena, eguneratuta bizitzea, besteek egiten duten ikerketa eta garapenaren jakinaren gainean eta, gainera, zeureak beste inorenak ez diren ikerketa proiektuak izatea. Horiek zureak beste inorenak ez dira, besteek ere jardungo dute lanean, baina zuk zeure ikerketa lerroa garatzen baduzu, ikerketa aplikatua, horixe duzu alde.

Goi mailako kirolaren helburua ikuslea gozaraztea da.

Eta ikuslea gehiago gozatzen da errendimendua handiagoa denean, kirolaria azkarrago dabilenean —ez alferrik *altius citius fortius* zioten latinez!—, eta, azkenean, garaipena lortzen denean.

Noiz arte da kirolaria *citius*, *altius*, *fortius*? Noiz hasten da gainbehera?

Gainbehera? Erresistentziatzeko frogetan, esate baterako, gero eta gehiago irauten ari dira kirolariak. Argitaratu berri den ikerketa baten arabera, Hawaiiko Ironman frogan hamar lehenen adina 27 urtekoa izatetik 34 izatera igaro da joan den hogeita hamar urtean. Eta gero eta azkarrago dabilta, gainera! Eneko Llanos, adibidez, sasoirik onean dago, eta 37 urte betetzekoa da azarotan. Jakina, gero eta gehiago dakigu



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

entrenamenduari buruz, elikaduraz, gorputzaren zaintzaz... Baina gainbehera derrigorra da, eta etortzen da. Ezer egiten ez badugu, 38 urterekin dohainak galtzen hasten da gure organismoa. Eta, esaterako, 40 urtetik gora oso zaila da goi mailako kirolak dituen eskakizunak betetzeko gai izatea: indarberri-
tzeak duen garrantzia ikaragarria da, eta adin batetik gora, egun batetik bestera indarberri-
tzea oso neke da.

Egun batetik bestera indarberri-
tzea. Horixe zaigu harrigarri, hiru
asteen ziztuan, tximistaren pare
dabiltzan ziklistek duten ahalme-
na. Eta laster da esaera: "Horiek
ez dabiltza aspirina hutsa hartu-
rik". Badira elikagai gehiga-
riak...

Goi mailako kirolariaren eskaki-
zunak eta beharrak gogoan ditu-
gula, elikadura osasuntsuak
eman ez ditzakeenak ematen
ditu elikagai gehigarriak. Ez dira
elikaduraren ordezkotxo, gehigarri
baizik, eta gehigarri besterik ez.
Proteinak behar ditugunean, ez
dugu proteina irabiakia hartu
ohi, dena delako kirola egiteko
behar den elikadurarik egokiena
lantzen dugu. Arrazoiaren bat
tarteko, elikadura mota hori nahikoa ez bada,
bestelako iturri batera jo beharko duzu pro-
teina, karbono hidrato, bitamina edo dena
delakoaren bila.

Dopinari buruz hitz egin behar dugu?

Ez derrigorrez. Baina errealitate bat da, pil-
pilean dago goi mailako kirolean, eta noizean
behin hitz egin beharra dago. Dopinaren



AZKEN HITZA

Ikerketa

"Oso ondo pasatzen dut ikerketa aplika-
tuan. Ikerketak kirol munduan benetako
aplikazioa duela ikusten dudanean, kirola-
riaren errendimendua hobetzen duela,
pozik naiz".

inguruan behin eta berriz jardue-
tea kaltegarria da kirolarentzat,
eta kirolarientzat, ez duelako
laguntzen kirolariek egiten duten
lanaren maila eta balioa prezia-
tzen. Bestalde, sinesgarritasuna
kentzen dio kirolariak egiten
duen lan guztiari. Batzuetan,
kirolariek beraiek egiten dute
huts. Niri kirola gustatzen zait,
asko, eta bertatik bertara ikusten
dut kirolari gehienek batere iru-
zurrik gabe egiten duten lana.
Oso-oso gaizki iruditzen zait
horri sinesgarritasuna kentzea.
Badakit, ziurtasun osoz, mun-
duan diren goi mailako kirolari
gehienak legearen barruan ari
direla. Gutxiengo batek egiten
duenak gainerako guztiak kalte-
tzen ditu.

Zergatik lotzen da dopina neurritz
gain ziklismoarekin, eta libre dira
futbola, pilota, tenisa, saskiba-
loia...?

Gauza asko ekarri dituzte azale-
ra txirrindularitzan azkenaldian,
eta horrek txirrindularitza
barruan halako kultura bat izan
dela erakusten du. Beste kirol
batzuetan ez da horrelakorik
haizatu, baina ez du esan nahi
izan ez denik. Txirrindularitzan
nabarmendu egin da kontua,

azalera ekarri dutelako, edota benetan beste
inon baino larriagoa zelako. Hala ere, gaur
egun kultura aldaketa oso nabarmena dago.
Txirrindularitzan, beste edozein kirolean, eta
are, gizarteko edozein arlotan ere,
beti izango da iruzur egiteko prest
ibiliko den jendea, baina horrek ez
gaitu gizartea osatzen dugun guz-
tiok iruzurti egiten. ■



1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

DIGESTIO-OSASUNA
ETIOPATIA

- GORPUTZEKO TOXINEN GARBIKETA
- DIGESTIO ARAZOAK
- KOLON HIDROTERAPIA
- DETOX DIETA PERTSONALIZATUAK
- GORPUTZAREN OREKATZE OROKORRA

Legazpi 4, 11 DONOSTIA · ☎ 943 441 650
Rondilla 6, 1 TOLOSA · ☎ 680 40 76 39
info@zubidonosti.com · www.zubidonosti.com

Udaran Euskal Herrira, indarberritzera

Yanak eta Vladyslavek ez zuten bizi izan azken hamarkadetan gertatu den istripu nuklearrik larriena. Adalak eta Aazizak ere ez zuten ikusi ingurukoek euren lurretatik nola egin zuten ihes. Baina laurei eragin diete euren herrialdeetan gertatukoek. Sarraskiotatik urrun, udaran familia berriak dituzte ume hauek, Euskal Herrian zain.

| IURE EIZAGIRRE |

1986KO APIRILEAN, Txernobilgo zentral nuklearreko errektoreetako batek su hartu eta inoizko ezbehar nuklearrik larrienetarikoa gertatu zen. Eta ondorioz, hildakoak, zaurituak eta oraindik hodei erradioaktiboak eragindako kutsadura pairatzen duten belaunaldi zahar eta berriak. 1975ean berriz, Espainiak Mauritania eta Marokoren esku utzi zuen Mendebaldeko Sahara. Eta ordutik, independentzia aldarrikapena, gerra, sahararren ihesa, Aljerian ezarritako errefuxiatu kanpalekuak, NBEk onartutako erreferendumaren zain pasatako urte luzeak, lurralde okupatuan dirauten sahararren aurkako zapalketak eta euren jatorrizko lur eremua ezagutu gabe kanpalekuetako baldintza gogorrak jasan behar dituzten saharar belaunaldi berriak.

Horiek eragindako mina eta bizi baldintza eskasak apur bat arintzeko elkartasun proiektuak garatzen dituzte, besteak beste, Chernobil Elkarteak eta Oporrak Bakean ekimenak; hango haurrek bi hilabete igaro ditzakete udan gure artean.

Yana Yagodinskak eta Vladyslav Yagodinskyk, esaterako, erradioaktibitateaz kutsatutako eremutik atera eta elikagai osasuntsuagoak jan ahal izango dituzte, baita mediku-azterketak egin ere. Aurten 270 haur etorri dira Hego Euskal Herrira Chernobil Elkartearen eskutik, eta horietako 50 lehen aldiz izango dira udan gure artean. Adala Mohammed Ali eta Aaziza Abba Mohammed bezalako chunka ume sahararrek ere desertuko udako tenperatura altuak (50 gradutik gora) saihestu ahal izango dituzte Oporrak Bakean programari esker.

Yana eta Slava hasieran keinu bidez moldatzen ziren, baina dagoeneko euskaraz ikasi dute umeek

Neba-arrebak batera, egokitzapena errazteko

Txernobildik gertu dagoen herri batetik etorri dira Yana eta Slava (hala deitzen diote mutikolari) 10 eta 8 urteko umeak. Lezaman pasako dituzte abuztu amaiera arteko egunak, Estibaliz Zabalaen eta Oier Barañainen etxean. Esperientzia ez da berria, lau urte igaro baitira lehen aldiz etorri zirenetik. Ez zen harrera familiaren asmoa bi haur batera hartzea, baina elkartarekin egindako elkarriketaren aukera sortu, euren egokitzapenerako errazagoa izango zela ziurtatu eta bata besteari “zergatik ez?” galdetu ostean, Yana eta Slava hartu zituzten. “Esaten dute lehenengo urtea izaten

dela txarrena eta gurea nahiko ona izan zen, arin moldatu ziren gurera. Beraientzat mundu berri bat deskubritzea bezala izan zen”, dio Zabalak; logelari sartu zirenean umeek lurrian zegoen alfombra ileduna nola ukitzen zuten du gogoan. Barañainek dioenez, dutxan ur beroa izateak

eta telebista handiak ere harritu zituen Yana eta Slava: “Gauza txikiak eurentzat handiak dira; gu ez gara konturatzen”.

Haurrek ez zekiten euskaraz, hasieran keinu bidez moldatzen ziren baina bigarren egunetik aurrera berbak esaten hasi eta prozesua erraza izan zen. Dagoeneko, euskaraz ikasi dute umeek. Eta ez da euskaldunekin bakarrik darabilten hizkuntza: euren eskolan badaude uda Donostian pasatzen duten haur gehiago eta haiekin euskaraz egiten dute Yanak eta Slavak. “Nik hemen lagunekin egiten dut” erantzun omen zion behin neskak Barañaini, euskaraz hain ondo nolatan egiten zuen galdetuta.



Urtebete pasatxoko semea du Lezamako bikoteak. Yana eta Slava harekin ondo moldatzen dira, nahiz eta batzuetan trikimailuak erabili behar izaten dituzten: “Txikia eskolatik ekartzean beste biek logelan ezkutatu eta isilik egon behar dute hura siestara eraman ahal izateko, bestela eurekin jolasten geratu nahi du”. Neba txikiagoa dute Ukrainian, beraz, badute esperientzia haurrekin. Gainera, euskara irakasten ari zaizkie neba ukrainiarri, 6 urte betetzean hura ere hona etorriko den esperantzaz.

Hemen dauden bitartean, hasieran astero deitzen dute etxera, amarekin hitz egiteko, eta gero hamabostean behin. Urtean zehar, haurrak han daudenean, Zabalak eta Barañainek deitzen diete, zer moduz dauden jakiteko, baina hurrei ez zaie asko gustatzen hango gauzak kontatzea: “Ez dute azaldu nahi izaten zein bizi baldintza gogorrak dituzten, gauza onak bakarrik esaten dituzte eta besteak isildu”. Zabalaren ustez inguru hura geratu egin da istripuaren ostean: “Dena dago kutsatuta, jaten dutena, edaten dutena, eta ez dute dirurik dendan ura erosteko. Jatekoa hemengo prezioan dago eta soldatak berriz, oso txikiak dira. Gainera, lana orain bai eta orain ez egiten dute”. Diru eskasiak osasunean ere badu eraginik, dena ordaindu

Estibaliz Zabala, Slava Yagodinsky, Oier Barañain, Amets Barañain eta Yana Yagodinsky, mendira egindako irteera batean.

egin behar baita. Slava, adibidez, herren heldu zen lehen urtean, txikitan erori eta ez zutelako behar bezala sendatu ahal izan. Hemen operatu zuten, bigarren udan.

Horrez gain, bestelako kultura ezagutzeko aukera dute txikiek, emakumeek etxetik kanpo lan egiteak harritu ditu, esaterako. “Gauzeekin konturatzen dira. ‘Hemen aitak eta amak egiten dute lan, eta amak ere autoa du hemen, zergatik han ez?’ bezalako gauzei bueltak ematen dizkiete”, azaldu du Zabalak.

Saharako haurrak elkarren bila

Adala Mohammed eta Aaziza Abba Mohammed neskatoek duela aste batzuk utzi zuten Aaiun errefuxiatuen kanpalekua bi hilabetez Zarautzera etortzeko. Adalak bigarren urtea igaroko du Garbiñe Arteagaren eta Jose Mari Inigoren etxean, nahiz eta iaz ezin izan zuen etorri. Aazizak, berriz, hau izango du lehen aldia Asier Oñederra eta Kristina Peñaren etxean. Dena den, eskarmentudun harrera familia da, duela zazpi urte beste haur saharar bat izan baitzuten etxean. Ahmed zuen izena eta hanka lurrean jarri ezinda heldu zen Euskal Herrira. Heldu orduko medikuarenera eraman zuten, igeriketa eta bizikletan indartze-ariketak egin zituen, eta korrika egiteko gai zela joan zen hemendik. Hurrengo urtean

SAHARA ETA TXERNOBILGO HAURRAK



Errefuxiatu kanpalekuetan egin ezin dituen ekintzak egiteko baliatzen du uda Adala Mohammed-ek, surfa praktikatzeko adibidez. Argazkia aurtengoa da, Zarautzen.

Uda herri berean pasatzen duten ume sahararrek euren artean elkartzeko joera dutela gaineratu du Iñigok: “Zailagoa da besteekin nahastea, hizkuntzagatik-eta”. Jarrera horrek kezkatzen du Peña, 7 urteko alaba eta 3ko semea baitituzte eta denak elkarrekin aritzea nahi dute. Alabak ulertu du gurasoen aukera, eta egonaldia erraztu nahi dio Aazizari. “Hizkuntza arazo bat da, hizkuntzarik gabe komunikatu daitezkeenean erotu egiten dira, harrotu eta konplize

dira, baina komunikatzeko hizkuntza behar dutenean zaila egiten zaie”.

Euskara dute etxeko hizkuntza eta hori da orain arte alaba zaharrenak erabili duen bakarra, baina Aazizak hemengo hizkuntzen artean dakizkien hitz gutxiak gaztelaniazkoak dira. Adalarekin berriz, arabieraz hitz egiten du, nahiz eta honek gainerakoekin gaztelaniaz egiten duen.

Oporrak Bakean programan, errefuxiatuen kanpalekuetatik irteten diren hurrek familia berarekin bost urteko zikloak egin ditzaten saiatzen dira. Urteren batean ezinezkoa balitz, beste familia bat bilatzen zaio umeari. Saharautz Elkartea arduratzen da Zarautzen eta inguruetan familiak bilatzeaz eta elkarrizketatuek eurek azaldu dutenez, lehen jende gehiago zegoen prest haurrak hartzeko. “Uste dut jendeak bost urteko zikloa amaitu eta utzi egiten duela. Askok asetzen du, baijan asko eman behar duzu eta gero haurra joan egiten da eta berriro hasieratik hasi behar zara”, iritzi dio Iñigok.

Iñigok berak, esaterako, izan du zalantzarik harreraren inguruan: “Ez dakit zenbateraino den ona lehenbizi gozoki hau eman eta gero kentzea, baina alde ona begiratu behar diozu”. Oñederrak, umeen larruan jarritz, garbi du euren eremutik kanpo zerbait gehiago dagoela ikusteko balio diela, motibatuzko: “Bestela dunak bakarrik eza gutzen dituzte eta harago dagoen ezer ez badute ezagutzen, alferrik eskatuko diete zerbait gehiago lortzearen alde borrokatzeko, ez dutelako jakingo zergatik ari diren borrokatzen”. ■



saiatu ziren berriro hura ekartzen, baina ezinezkoa izan zen. Ondoren seme-alabak izan eta aurtan, berriro haur bat ekartzea erabaki dute.

Oraindik denbora gutxi da Aaziza beraien artean dagoela, baina beldur batzuk badituzte: hizkuntza, euren seme-alabekin nola moldatuko den... Harrera familiek ez ezik, umeek ere izaten dituzte beldurrak. Adalak, adibidez, beldurra dio iluntasunari eta Zarautzen egon zen lehenengo urtean Arteaga eta Iñigorekin egiten zuen lo. Ohean, leku gehiena gizonaren aldean bazuen ere, Adalak emakumearengandik gertu egin nahi zuen lo, eta sahararrek gizonetikiko duten harremanagatik dela uste du Iñigok. “Bi astetara nire aldean egiten zuen lo eta eskua ematen zidan lotarako”. Neskatok gizonekin duten errespetu edo zorrotasun harremanaren erakusle da halaber etxeko gizonak esan arte mahaian jaten ez hastea. Aazizak ez du horrela jokatzeko eta Peña uste du etxean haur txikiak edukitzeak laguntzen diola horretan. Hala ere, “aita da agintzen duena, Asierrekin txorakeria gutxiagorekin ibiltzen da. Aitak zerbait esaten badu, horrela da eta kito. Baina hori han bizi dutenaren isla da”, dio Peña.

Oporrak Bakean programan, errefuxiatuen kanpalekuetatik irteten diren hurrek familia berarekin bost urteko zikloak egin ditzaten saiatzen dira



PSOEK bere proiektu federala
esplikatuko du...

<Herriak beren buruaren
jabe behar dira izan?


<Euskaldunen,
independentziaren
aldekoa naiz ni...

...Espainia
onartzeko
prest ote da
ordea? >

Francesc Pi i Margall
Espainiako 1. Errepublikako
presidentea, Federalismoa
ren ideologo nagusia.



Pi i Margall?
ARRASTORIK
ere ez, aizu!



MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Erretretako pentsioak auzitan

GERORAKO erretretan pentsio publikorik izango al dugu? Galdera honen erantzunak bi erpin ditu. Ekonomiaren gaitasunari erreparatzen baldin badiogu, erantzuna, baiezkoa da. Baina politikari so egiten baldin badiogu, ezetz borobila, berau interes ekonomikoen menpeko baita.

Euskaldunon pentsioak, gure estatus politikoa aldatzen ez den bitartean, Espainiakoen menpe egongo dira. Orduan, epe labur-ertaineko azterketa Espainiako pentsio sistemaren arabera egin beharrean gaude.

Orain arte pentsio kopurua finkatzeko aldaketa ugari egon dira, azkenekoa duela bi urte; baina aldiro pentsionisten kaltetan. Hala ere, aldaketa nabarmenena azken hau izango da. Izan ere, orain arte Kontsumoko Prezio Indizearen arabera egokitzen ziren pentsioak, baina hementik aurrera, pentsio fondoen iraunkortasunaren arabera doituko dira.

Soldata garaiak edo apalak izan tasa bera, portzentaje finkoa, aplikatzen da; berdin dio Botinen soldata erraldoia izan edo peoi xume batena. Horrez gain, kontua da aurrekontu orokorretatik pentsioen funtsera transferitzea. Horretarako borondate politikoa behar da eta Espainiako agintariak garbi frogatu dute bankuei dirua emateko edozer gauza egiteko prest daudela

Pentsio kopuruak finkatzeko aholkua “jakitun” interesatu batzuei eskatu zitzairen, ez edonori gainera. “Jakitun” horiek, inola ere, ez ziren neutralak, baizik interes finantzario zehatz batzuen defendatzaileak, nahiz eta hamabi kideetatik bat UGTko ordezkaria izan, nahiko kritikoa berau, eta bigarrena CCOOekoa. Azken honek bat egin zuen finantza munduko ordezkariekin.

“Jakitun” hauen kalkuluak oso epe luzeko populazioaren bilakaeran oinarritu dira. Izan ere, 2050ean Espainiako Estatuak izango duen populazioa hartu dute

kontuan eta ez da auzitan ipini zenbatespen hori. Badakigu zer-nolako aurreikuspenak egiten diren, gehienetan bi-hiru hilabeteren buruan zaharkituta geratzen baitira; baina nola jakingo dugu hementik 37 urtera zer gertatuko den populazioarekin? Aldagai bat baino gehiago egonda: etorkinak, jaiotzak sustatzeko politika publikoak eta abar. Beraz, kalkulu zehatzak egiteko oinarri ahulak dira “jakitunek” erabili dituztenak. Hala ere, ondorio nabarmenetara iritsi dira: pentsioen murrizketak.

Ez al dago, bada, beste irteerarik? Jakina baietz. Pentsioek ibilbide luzea daukate Espainiako Estatuan Europako Batasuneko (EB) mailara heltzeko, Barne Produktu gordinaren %10 bakarrik baita hemen eta %13,5 EBn. Beraz, gutxienez 3,5 puntu igo daitezke Espainiako Estatuan.

Nola? Gizarte Asegurantzaren kotizazio oinarria eguneratuz eta kotizazio tasa aurrerakorragoa aplikatuz. Orain, soldata garaiak edo apalak izan tasa bera, portzentaje finkoa, aplikatzen da; berdin dio Botinen soldata erraldoia izan edo peoi xume batena. Horrez gain, kontua da aurrekontu orokorretatik pentsioen funtsera transferitzea da. Horretarako borondate politikoa behar da eta Espainiako agintariak garbi frogatu dute bankuei dirua emateko edozer gauza egiteko prest daudela, Konstituzio “aldagaitza” bi astetan emendatzea barne; baina besta gauza bat da herritarren aldeko neurriak hartzea.

Gaitasun ekonomikoa egon, badago. 1970ean nekazaritzako populazio aktiboa %18 zen Espainiako hiritar oro elikatzeke; gaur egun populazio aktibo horren %2k nahikoa ekoizten du hiritar guztiak elikatzeke. Beraz, nola ez da gaitasunik egongo populazio aktibo urriagoak pentsiodunei nahiko diru ziurtatzeko, 1971tik 2011ra produktibitatea urtero %2,5 hazi bazen?

Borondatea (politikoa) dagoenean, mendiak erraz mugitu omen daitezke, are errazago erretreta pentsio duin batzuk. Hor planteatu behar da gatazka. ■



**Edorta Arana**

♦ EHUko IRAKASLEA

Komunikazio esperimentuak

USTE IZAN dugunaren kontra, komunikabideen eragina ez ei da hain zuzena, ezta pentsatzen genuen tamainakoa ere, komunikazioaren ikertzaileen esanetan. Faktore askok baldintzatzen omen dute eragin hori eta denak ez daude medioen ugazaben esku.

Hori onartzeko prest nengo-ke, baldin eta boterean daudenek komunikabideekiko interesa galdu dutela ikusiko banu. Egun-kariak, irratiek ala sarean esaten dena kontrolatzeko interesik eta beharrik ez daukatela nabaritzen dudanean, eraginaren teoria baztertuko dut, berehalaxe. Bien bitartean gogoratuko ditut telebista digitalen lizentzia banaketa egin zenean alderdi politikoen arteko borrokak, Nafarroako irratilizentzien eskandalua, siamesena dirudien komunikabide publikoak eta agintean dauden indarren arteko erlazioa... gehiago behar?

Hori horrela izanik, jarraitzen dut pentsatzen Euskal Herriak beharrezkoa duela komunikabideen egitura propio, zabal eta sendo bat. Eta, publikoak zein pribatuak diren komunikabide horien erabileran, aktibo behar direla aniztasuna, kontrol publikoa eta profesionaltasuna bermatuko dituzten mekanismoak.

Baina, aurreko pasarteari kontra egin barik, komunikazioaren kudeaketak zelako garrantzia daukan azpimarratu nahi nuke orain. Komunikabide sare egoki bat ez daukanak ere bere mezua eraginkortasunez erabili dezake eta xede duen jendearengana heldu eta nahi dituen mezuak bidali.

Internetek horretarako sekulako indarra dauka. Ez bakarrik komunikabide tradizionalen agen-

dan gaiak txertatzeko baizik eta horien irakurketarako elementuak proposatzeko. Adibide batera joko dut: Donostiako Bulebarrean antolatu zen lehendabiziko Aske Gunea. Herri harresia delako ekintza antierrepresiboa oso eredu interesgarria bilakatu da gertaera sozial bat komunikazio kanpaina eraginkorra nola bideratu daitekeen erakusteko. Ez diot garrantzirik kenduko fisikoki bertan gertatutakoari (espazio publikoa politikarako eremu gisa errebndikatzea, indar korrelazio berriak ikustaraztea, gazteen mobilizazio gaitasuna...) baina bereziki interesgarria iruditu zait komunikatiboki nola kudeatu den. Sareak barne zein kanporako komunikazio tresna gisa funtzionatu zuen eta biderkatzailea suertatu zen edukiak eta hauen testuinguru interpretatiboa jendarteratzerakoan.

Komunikabide tradizionalak, botere guneetatik hurbilago dauden horiek, Bulebarrean gertatzen zenari ezin izan zioten bizkarra eman eta erreakzionatu behar izan zuten. Hori bai, berandu eta makal. Ordurako, Aske Gunetik eskainitako mezuak gorpuztuak ziren argazki, bideo eta mezu idatzien bidez, biderkatuak, hizkuntzen mugak gaindituz eta eragin eremu ohikoetatik harago konplexurik gabe zabalduz.

Komunikabide berrien kudeaketa aiposean dago gakoa. Horretan abilena denak eta azkarren dabilenak markatuko du besteen bidea. Malgutasuna, freskotasuna, gatzetasuna eta frogatzeko beldur ezak sekulako garrantzia du. Ikusi da! ■



BERTSO BERRIAK

Lan hitzarmenak



DANI BLANCO

Aitor Sarriegi

♦

Doinua: Hamalau heriotzena.

Aurtengo uztailaren zazpitik zortzira aldatu zuen jende askok ikusmira. Zertan bizi hitzarmen handiei begira Madrildik erreformak egitean tira denak ezerezean geratzen badira?

Erru bera daukate onartu zuenak eta lan erreformaz baliatu denak. Hitzarmen eta sosez nahiz mintzatu denak eskubideak dira jokoan daudenak urtetako borroka lortu dituenak.

Orain arte gaituzte jipoitu, epaitu... baina Madrilgo soka ez da hor amaitu. Nahieran tenk jartzen da, nahieran lasaitu sokak berekin karga gehiago bai baitu eta eten ezean ito egingo gaitu. ■



Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦



ITZIAR UGARTEMENDIA

Euskalgintzaren *Gizarte kapitala*

ZEIN DA euskararen eremuan dagoen *Gizarte kapitala*? Zer da, baina, *Gizarte kapital* delako hori?

LEIRE LOPEZ-GIL arabarrak Robert Putnam-en *Gizarte kapital* kontzeptua baliatu zuen, HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondoko bere ikerlanean. Ikerketaren izenburuak berak egilearen asmoaren berri argia ematen digu: *Gasteizko erakunde publikoen eta herri ekimenaren arteko osagarritasuna euskalgintzan*. Balizko osagarritasun hori da, hain zuzen ere, gaur egun euskararen unibertsoan eztabaidagai dagoen puntuetako bat.

Zergatik hautatu du Leire Lopez-Gilek kontzeptu hori? Berak esana: euskararen inguruan gizarte aldaketa bat gauzatuko bada, batetik, “harreman-sare sendoa” eta, bestetik, hori lortzeko “konfiantza maila altua”, bi-biak, beharrezkoak direlako.

Nolakoak dira harreman-sareak eta elkarrekiko konfiantza euskararen eremuan? Aspaldiko partez, onenak dira; aurrera begira, hala ere, hobetzeko premia handiz.

HITZAREN BALIOA. “Hitza ematea”k asko balio izan du euskal gizartean, mendez mende. Erdaraz esanda ere “euskaldunaren hitza”k esanahi garbi bezain sendoa (izan?) du atzerrian. Hitzaren balio hori elkarrekiko konfiantzaren gain eraikia da.

Egungo estatistikei erreparatuz eta EAEko biztanleek lagun hurkoengan dugun konfiantza neurtuz, baliorik handiena (10etik 7 puntu) familiaren eta lagu-

nen sareetan jartzen dugu, eta txikiena (4,5) instituzioetan (EUSTAT, 2013: *Kapital sozialaren inkesta*). Instituzioek badute zertaz hausnartu, beraz. Baita herritarrok instituzioekiko jarreraz ere.

Bada aldea, ordea, inkesta horri erantzuteko erabil den hizkuntzaren arabera: euskaraz erantzun dutenen %38k “konfiantza maila handia” adierazten du orokorrean, maila hori erdaraz erantzun dutenengan %26koa izanik. Euskaldunen artean, hitzak balio handiagoa izaten jarraitzen ote du?

EUSKALGINTZAN ERE BAI. Baietz uste dut. Beste lekutan ez bezala, gurean “hitza” berme handia da oraindik ere. Giro profesioaletan, adibidez, hitzez hartutako konpromisoek izugarri errazten dute funtzionamenduen konplexutasuna eta, horren ondorioz, kostuak ere murrizten dira. Bere txikitasunean, euskalgintzak ere indar-metaketa bezain premiazkoa du eragileen arteko harremanak erraztea. Bestela jai du.

Horiek horrela eta Gasteizko euskalgintzan pentsatuz, hona hemen Lopez-Gilek idatzitakoa, horrekin bere lanari amaiera emanez: “Hortaz, Putnamek proposatutako gizarte kapitala abiapuntu hartuta, (...) sare sendo eta trinkoa lor daitekeela pentsatzen dut. Hori bai, talde bakoitzak bere eginkizun, betebeharrak eta nortasuna alde batera utzi gabe. Azken batean mugimendu heterogeneo baten beharra dago, uztargarria dena, noski”. Hala bedi! ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

(D)uda

UDA piloto automatikoaren garaia da: opor-rak, bestak Iruñean, Baionan ala Bilbon, hondartzetako egonaldiak pentsamendu zimizarik zilegitu gabe lanean daudeneko. Plazer hutsa. Ez guztientzat ordea. Turismoaren profesionalak, dagoeneko hala erraten baita, ez dira segur aurten sakelak sosez emokatuko dituztenik aitzineko urteetan bezala. Udatiarren lumatzeko ohitura hartua zuten hemengo iritzi publikoaren baimenarekin.

Hasteko eta bat euri sobera egin du udaberrian *manque à gagner* erraldoia eraginez. Krisiaren aferra gero. Ahoak eman ahala salatzen duten langilego alferraren

baliabide ekonomikoak murrizteko austeritate politikak txalotzen dituzten arren ez dute onartzen hiritar pelege horiek (ustez) hain erraz irabazten duten dirua gazta, urdaiazpiko, erreximeta edo girgila erosten ez xahutzea. Antza, moltsen ezpainak hertsatzen ari dira (sic).

Jakin dezatela turismozale falangatsuek 2013ko uztaila-agorritetako gure egunerokoa *decreixent* moduan harilkatzea erabaki dugula, soilik beharrezkoa eta diru omnipotentea premiazkoa ez duen bizi-pozaren ildokoa.

Tossudament alçats... gu ere! ■



EUSKAL MUSIKA ESZENA

Negozioa krisian, sorkuntza puri-purian

Musika industriak hondoa jo du. Moduak, denborak, diru iturriak eta negozioa aldatu dira. Baita musikarien zereginak eta helburuak ere. Baina musikak musika izaten jarraitzen du.

Krisia industriarena dela diote batzuek, ez dela musikariena edo sortzaileena, baina teknologia berriek irauli egin dituzte ildoak, eta bakoitzak egokien iruditu zaion bidea hartu du. Hala ere, hemen ageri diren guztiak bat datoz: egun dugun euskal musika eszena aberatsa eta anitza da.

| MYRIAM GARZIA |

MARIA RIVEROREKIN hitz egin dugu lehenik. Siroka taldeko abeslaria da, eta baita taldearen diskoak argitaratzen dituen Taupaka elkarteko kidea ere. Taupaka sortzaileek osatzen dute eta Muskherria plataforma desegin zenean sortu zen. Ez da ohikoa sortzaileak besterik ez aurkitzea diskoetxe batean edo musika enpresa batean, baina kasu honetan halaxe da; eta musika esparrukoak ez ezik, arlo ugarietako sortzaileak ere badira dira: pailazoak, Dj-ak, argazkilariak, ipuin-kontalaria...

Autogestioa eta Copylefta dira elkartearen ezaugarri nagusiak. “Taupaka jaio berria da —urtea beteko du abuztuaren—, eta pausoak eman ahala konturatzen gara norako bidea hartu behar dugun. Arlo anitzetako sortzaileak gaudenez, eztabaida interesgarriak izaten ditugu. Ez dakigu kulturaren zer gertatuko den, baina badakigu zer ez dugun nahi. Ez dugu nahi beste inork, are gutxiago SGAEk, gure lana kudeatzerik, gizarte oso baten eskubidea lehenesten dugulako, doako kultura duinaren aldekoak garelako. Azken helburua, gure musika ahalik eta jende gehienak entzutea da, eta horrek, egun, ez dauka zerikusik diskoen salmentarekin”, dio Maria Riverok.

Sorkuntzak eta kudeaketak sortzailearen esku geratu beharko lukete Taupakako enaburuz, alegia musikarien esku. “Bide ugari dago horretarako, baina autogestioaren munduan beti ere. Egungo sistemak ez du balio, ez musikari, ez beste zenbait alorretan ere”.

Emakumezkoen rola dagokionez, berriz, “kulturan ohikoa dena gertatzen da musikan ere, gizartearen ispilu da. Okorrean, aurrerapausoak eman direla dirudi, eta emakumeak



Maria Rivero
Siroka taldeko
abeslaria eta
Taupaka
elkarteko kidea.

oso lasai ikusten ditut. Gauzak ez dira eginak etorriko, borrokatu beharra dago”. Arduraz bizi du Riverok genero diskriminazioa: “emakumeek aurreiritzi asko gainditu behar izaten dituzte eszenatokira igotzerakoan, gizona-koari aplikatzen ez zaizkionak”.

Aiora Renteriak 15 urtetik gora daramatza Zea Mays musika taldeko lehen planoan. Haserretu zait, euskal musika eszenan emakumeek duten presentzia eskasa aipatzerakoan. “Jende asko dago hori aldatzeko prest”, dio.

Inaxio Esnaola, Harrobia Lantzen ekimeneko arduraduna

«Geure zilborrari pixka bat gehiago begiratu beharko genioke»

Euskal musika taldeek behar beste-ko espazioa dute?

Ez naiz sekula nekatuko Euskal Herriko musika taldeei dena zor diegula esateaz. Horren herri txikia izanik, hemen dugun talde kopurua harrigarria da, eta oro har, maila ere ona da estiloz estilo. Kanpoko musika estimatu eta goersten den garaian, uste dut geure zilborrari pixka bat gehiago begiratu beharko geniokeela, hamarkada pare bat atzerago egin zen bezala. Euskal Herriko musika eszena zinez interesgarria da, gaztea, trebatua eta osasun onekoa. Horregatik, gehiago babestu beharko genuke, argitalpenak eskuratuz, kontzertuetara joanez, banden ekarpenari arreta jarritz.

Urtean argitaratzen diren euskal diskoen zerrenda biltzen duzu. Zerrenda gero eta luzeagoa da, zein diagnosi egingo zenuke?

Azken urteetan, batez beste 300 lan plazaratu dira gurean. Beraz, argitalpenek gora egin dute, bate-tik, talde askoren lehen urratsa maketa izan beharrean diskoa edo EPa bihurtu delako. Bestetik, aurrerabide teknologikoez grabazioak erraztu dituztelako. Eta Internet ere mugarri izan da lanak sarean jartzeko. Formatuei dago-kienez, ohiko jewel box eta digi-pack formatuek bizirik jarraitzen dute, baina beheranzko joeran daude. Biniloa geroz eta estima-tuagoa da, eta formatu digitalak ere berebiziko garrantzia du. Disko ukigarria desagertuko ez den arren, mp3 sortadun karpetak, disko digital gisa ezagutzen dire-nak, izango dira etorkizuneko argi-talpenak. Bestalde, nabarmendu behar da urtetik urtera soinu kali-tatea eta sormena maila onean mantentzen direla.

Garaiei lotuta al dago euskal eszena?

Hemengo musika eszena askotari-koa eta aberatsa da, horrela defen-



datzen dugu Harrobia Lantzen ekimenaren urrats bakoitzean. Musika estiloen oreka gertatu da gurean, eta modak desagertu ez diren arren, estilo oso ezberdinak jorratzen dituzten bandak bizi dira elkarrekin. Ziurrenik rock musika izango da nagusi, baina pop musi-ka (komertziala zein indie gisakoa) indarra hartzen ari da. Noski, ska-core dantzagarriak herriko plazak betetzen ditu eta nerabe iraultzaile-n gustuak bereganatzen. Punk eszena ere badago, bereziki Gipuz-koa eta Bizkaian. Musika beltzak ere badu lekua, hazten ari den reg-gae eta hip hop korrante interesga-rrari esker. Aldiz, heavy metal musikak iraganeko oihartzuna apal-du eta oreka egoki bat topatu du, taldeek zein zaleek gustuko dutena. Azkenik, musika tradizional edo folk kutsukoak ohiko leku garran-tzitsua mantentzen du gurean.

Duela gutxi sortu da euskal musika-rien elkarteak. Nork hitz egiten du musikarien izenean?

Elkartzea ezinbesteko bihurtu da, kulturaren ez ezik, baita beste alorre-tan ere. Hori horrela, erabat nor-mala da musikariak bat egitea, dis-koetxeak bat egitea, musika eragileak bat egitea... Musikariei dagokienez, beraien eskubideak defendatzeko tresna egokia izan daiteke elkarteak. Baina ondo defi-

nituz behar dira eskubideak. Musi-kariak gainontzeko langileen esku-bide berberak dituztela esaten dute maiz. Alegia, okinak ogia egi-ten duen bezala, musikariak abes-tiak egiten dituela. Nire ustez, hori ikuspegi okerra da. Gainera, Espainiako SGAE elkartearen defendatzaile sutsuen tesiak etor-tzen zaizkit gogora. Musikarien ekarpena ofizio batetik harago doa, kultura sortzen baitute. Horrek ez du esan nahi kobratu behar ez dutenik, baina helburua ezin da izan kobratzea. Horrega-tik, ikusten dudanean musikari bat “errespetatzen” esaka, urdaila nahasten zait.

Euskal musikariak elkartzuta daude-la uste duzu, dena den?

Eskubideak defendatzeko orduan, ados jarriko dira, seguru. Diru kontuetan zailtasun handiagoa ikusten dut. Maila apaleko taldeen artean gertatzen dena jarriko dizut adibide gisa. Talde asko kexatzen da beraien kontzertuetara ez dela-ko jenderik etortzen. Baina talde horietako zenbat hurbiltzen dira beste taldeen kontzertuetara? Babesaren aferan galdu egiten dira banda asko, eta horrek agerian utz dezake zer nolako harremana izan dezaketen elkarrekin.

Nola ikusten duzu musikarien lan egoera?

Musikatik bizi direnak oso gutxi izango dira gurean. Ehuneko oso txiki bat izango dira horiek. Egia da musikari askok beren afizioa, eta ez ofizioa, antzeko lanekin uztartzen dutela. Esaterako, musi-ka irakasleak dira asko, edo kultu-raren eremuan aritzen dira lanean. Baina aurrerago esan bezala, nik ezin dut alderatu abesti sortzaile bat makina saltzaile batekin. Musi-ka ez du ofizio bezala ulertzen, lan normal bat izan daitekeen arren, zilegitasun osoz. ■

1998an sortu zen Zea Mays. Panorama arrunt aldatu da geroztik. “Hasi ginenean, diskoetxeek dirua inbertitzen zuten, eta grabazioa, promozioa eta disko aleak haien esku zeuden. Internetek ez zuen indarrik. Gaurko talde gehienek gutxienez grabazioa ordaindu behar izaten dute eta normalena, den-dena ordaindu behar izatea da. Gero, zure musika munduratzeko, Internet duzu”.

Gauzak horrela, eta disketxe batetik bestera jo eta gero, autoekoizpenaren aldeko apustua egin zuen taldeak *Morphina* (2007) diskoa plazaratzea egokitu zenean. “Naturaltasunez egin dugu, gure lana maite dugulako, ahalik eta aukera gehien eman nahi diogulako gure musikari. Egin genezakeen onena egin dugu, abantailak eta desabantailak gure gain hartzea, horrek lan handia ekartzen duen arren”.

Hainbat talderekin egiten du lan Aiora Renteriak, eta ondo ezagutzen du gaurko egoera. “Osasuntsu ikusten dut, pila bat talde dago, kalitate handikoak dira, estilo oso ezberdinetakoak. Musika estilo guztiak entzun daitezke euskaraz, rap, pop, death metal, rock, punk... lehen ez zen horrelakorik gertatzen. Ehunka kontzertu dago astebururo, mota guztietako aretoetan (gaztetxe, taberna, plaza...). Ematen du krisia dela eta txarto doala dena, baina ondo begiratzen baditugu, argi dago eskaintza handia eta kalitatezkoa dugula”. Zea Mayseko abeslariaren hitzak ditugu. “Bitxia da gertatzen dena. Jaialdi bat antolatzen denean, enzenatokia edo ekipoa jartzen dutenak, elektrizistak, promotoreak, managerrak, segurtasuna, publizitatea.... denak egiten ari diren horretatik bizi dira, denak salbu eta eszenatoki gainera igotzen direnak”.

Musika mintzagai

Entzun! egitasmoak 1996. urtean du jatorria, gazte talde batek euskara hutsezko lehendabiziko musika aldizkaria abiatu zuenean. Garai horretan prentsa idatzian zegoen hutsunea betetzeko sortu zen, eta bi hilean behin argitaratzen zen. Lehen urratsak eman zitueneko hartan Esan Ozenki zigiluaren babesa izan zuen. Denborak aurrera egin ahala, hainbaten eskuetatik pasa zen *Entzun!* aldizkariaren



Zea Mays taldeko Aiora Renteriaren ustez, “eskaintza handia eta kalitatezkoa dugu hemen”.

ardura, harik eta 2002 urtean, zenbait hilabetez huts egin eta gero, www.eragin.com-ek bere gain hartu zuen arte. Bada, 1996 urtetik, 57 zenbaki argitaratu ziren, azkenekoa 2007ko abenduan. Bitartean, 2003 urtean, www.eragin.com-ek berak, www.entzun.com ataria sortu eta aldizkaria sareratu zuen estreinakoz. Ahalketsu abiatu zen euskarri berria, baina apurka presentzia eta indarra hartu zuen. “Hazkundera ikusita, eta

komunikazioaren aro berrian bete-betean murgilduta geundela sinetsita, gure indarrak web euskarrian jartzeko hautua egin genuen. Halere, ez genion paperezko bertsioari muzin egin nahi izan, eta *Entzun!* disko-liburua sortu genuen”, azaldu digu Xabier Sagardia webguneako arduradunak.

Sagardiaren ustetan “euskal musikak ez du merezi duen espazioa hedabideetan, “batik bat medio erdaldunez eta bereziki telebistaz eta irratiaz, ari bagara”. *Entzun!*-eko arduradunaren hitzetan, euskal musika eszena erabat anitza da: “Dagoen guztia ez da ona, baina gauza on asko ditugu. Hala ere, askotariko izaera hori batzuetan ez da behar bezainbeste islatzen, edo bederen, estilo batzuek kostata lortzen dute publiko handiagora heltzea”.

donostiakultura.com



ANTZERKIA

CAMPANADAS DE BODA

LA CUBANA

Victoria Eugenia

Uztailak 17-21

● gaztelania



ERAKUSKETA

1813. DONOSTIAREN SETIOA, SUTEA ETA BERRERAKITZEA

San Telmo Museoa

2014ko urtarrilera arte



ANTZERKIA

HIRU

LOLI ASTOREKA, MIREN GOJENOLA, ANA ELORDI, ZUHAITZ GURRUTXAGA

Antzoki Zaharra

Abuztuak 15-18. 20:00 ● euskara

ESTREINALDIA

SARRERAK

Leihatilak - www.kutxasarrerak.net

BAZKIDEAK: -10%





Teknologia berriek hainbat aldaketa ekarri dute musikaren eremura. Besteak beste, errazagoa da grabatzea, errazago ere ikus-entzunezkoak Interneten jartzea, eta musika saretik entzun edo deskargatzea. Egun edozeinek grabatzen ahal du etxeko estudio batean eta CDan tirada bat egin. “Alde positiboa ere badu horrek, baina amateurismorantz jo dugu hein handi batean. Sorkuntzari dago-kionean, bere zentzu hertsian, talentua, konposatzeko abilezia... ez dago teknologia berrien menpe”, Sagardiaren ustez.

Musika industriari hondoan jo du, eta horren ondorioz, musikak ez dakarkio lehengo negozio-rik inori. BEZ zergaren igoera, hondoratze horren azken eraso dugu. “Kultura gutxietea da BEZaren igoera ezinbestekoa dela esatea, baina ez dira konturatzen, (edo beharbada bai, eta horregatik egiten dute) musikak, antzerkiak, arteak, hitz batean, kulturak, gizartea eta pertsonak aberasten dituela, hazi egiten dituela. Eskuinak beti izan dio beldurra kulturak bera-ekin dakarren askatasunari”, dio Sagardiak.

Zuzenekoak

Musika munduan, sorkuntza bera baino gehiago, negozioa egiteko moduak aldatu dira. Egun, diskoa argitaratzeak ez du dirurik ematen, zuzenekoetatik ateratzen dira sosak. Esparru hori ongi ezagutzen du Ritxi Aizpuruk, Baga-Biga Musika Ideiak disketxearen ardura-dunak. Baga-Biga musika taldeen zuzenekoak eramateko sortu zen 2005ean, “Urgabe taldearen ekitaldiak garai hartan biderkatu egin zirenez, abagune egokia zen taldeen zuzenekoak kudeatzeko eta euren diskoak argitaratzeko” dio Aizpuruk. 2007an eraldaketa etorri zen eta Baga-Bigak 360 graduko politika kulturalari

Entzun! musika-aldizkari espezialdu gisa sortu zuen gazte talde batek, 1996an.



Ritxi aizpuru Baga Biga Musika Ideiak ekimenaren sortzaileak dioenez, “ikuspegi integraletik aztertu behar dira taldeak”.

ekin zion. Management bulegoa edo diskoetxe arrunta izateari utzi zion. “Musika bulego integral eta oso bezala definitu genuen Baga-Biga. Marketin interaktiboa deitzen zaio horri, eta kontsumitzailea bera markaren balore aktibo bilatzen da”.


Ikuspegi orokorreko irizpideak edo 360 graduko ekimenak heldu dira, beraz, musikaren industriara. “Musika taldeek zituzten galdera eta beharrei erantzuna osoki emateko gai izatea zen bidea. Musikarekin lanean, taldeekin lanean, zuzenekoetan lanean”, dio Aizpuruk. “Urte gutxi ditu Baga-Biga Musika Ideiak bulegoak, baina erreferente bilakatu da Euskal Herrian. Guztira 107 disko argitaratu ditugu eta milaka zuzeneko antolatu ditugu urteotan. Eskarmentua, esperientzia, profesionaltasuna eta trebakuntza garatu ditugu ahalik eta emaitzarik zintzoenak eskaintzeko”.

Autokritikarik ere bada halere. “Ekintza guztiak ez dira ateratzen nahi bezain airos eta indartsu. Aldagai ugari dago, eta estropezu egiten da nonahi. ‘merezi’ eta ‘espazioa’ oso termino erlatiboak dira. Denok merezi dugu hoberena, denenetzat espazioa exijituko dugu, baina den-dena ez da posible. Denek nahi dute merezimendua eta espazioa. Egongo balitz oso erraza litzateke gure jarduna. Musika talde batek ez badu pentsatzen bere musikarekin mundua jango duela, ez da urrutira iritsiko. Baina errealista izaten ere jakin behar da eta norberaren gabeziak ere onartu. Kantu guztiek ez dute balore berbera. Kantuei efektu biderkatzailea aurkitzea da Baga-Biga bulegoaren lana” zehaztu digu Aizpuruk.

Baga-Bigako kidea dugu Ritxi Aizpuru, baina garai batean Oihukako arduraduna ere izan zen. Musikan aditua, ondo ezagutzen du eszena, oraingoa eta lehengoa ere. “Euskal Herriko musikak beti egon behar du indartsu, hori pentsatu behar dugu bederen. Baina talentuak ez dira sortzen minututik minutura. Noizik eta behin sortu egiten dira, besteetan landu. Garai bakoitzari aurkitu behar zaio kritika eta oniritzia emateko gunea. Ikuspegi integraletik aztertu behar dira. Betidanik anitza izan da, baina kanpoan, beste hainbat herrialdetan, urtetako abantaila dute”.

Eremu honetan gertatu diren aldaketak hizpide hartu ditu Ritxi Aizpuruk, batez ere teknologia berriek ekarri dituztenak: “Ongizate gizarteak aurrerakuntza handiak eskaini dizkigu, baina horiek guztiak kapitalaren hitzik kuttunenak dira. Kontzeptu aurrerakoi eta ikuspegi kritikoak beti geure alboan behar ditugu. Tramankulu tekniko guztiek erraztasuna ekarri diote musikariari, aprobetxa ditzala modu kritikoan gizarte otzan honen aurka”. ■





Helduen literatura | POESIA

Jai alai
Beñat Arginzoniz
Hiria, 2013

Falta eta pasa

IRUDI sano plastikoak opatzen dizkigu Beñat Arginzonizek liburuan: “Pilotariak, ilargiaren sazerdote bat bailitzan, bizitzaren dantza, zorizko dantza, antzeztan du bere jokoaren bidez. Elkar jo gabe airea atzaparkadaz betez dantzatzan dira pilotariak”. Asko erabilia da pilotaren, joko garbiaren zein xisteraren, gerriko gorri-urдинen kirol aberatsaren arintasuna poesia egiteko. Esango nuke liburu minore honen asmoa ez dela poesia oso-oso goi mailakoa egitea, baina irakurraldi atsegina begitandu zait jokoaren inguruko afixa zahar eta pentsamendu zahar-berrien arteko hau. Narratiba saielan sartu du Hiriak, eta ez daukat nik irizmenik hala klasifikatzeko. Gauza politak eta atseginak, eta haiek sorturiko sentimendu estetikoak, puri-purian daude orrialdeotan zehar. Prosa da. Poesia da.

Beñat Arginzonizi egozten zaizkio interneten *Las voces de la nada* (2002), *Agua para los muertos* (2009, *Jabi Subversión X*-ren biografia antzeko bat) eta *Manifiesto poético y otros escritos* (2010), baina ez genuen ezagutzen bere iritzi artistikoa: “Bada, poesia betidanik idatzi dut nik dakidala, munduan egoteko modu bat da, eta hala ere ehun poema idatzi eta horietako gutxi batzuek asmatzen dute bete-betean, benetan zeozer komunikatzea. Gai-

nontzekoak beharrezkoak izan ohi dira momentuan, baina gero guztiz bazter utzi daitezke”.

Eta kasu honetan ere jo eta arrastora iristen ez diren sake asko daude –gehienak– baina baita bista-arentzako ederrak diren zenbait ukaldi ere. Euskal pilotaren jokoa halako festina lente estetiko batek gidatzen du, gidatu ere, eta orain bere onenean ez dagoen arren, Manilatik hasi eta Tamparaino gozatu dute pilota hormara ederminez eroatearen kirola.

Idazlea filosofatzen hasten denean irakurleari sartzen zaio halako *dèjà-vu % 100 basque* bat, dago-neko mila aldiz ideia bera irakurri izanaren sentipen astuna. Oteizak esan ez zuenik ez dago hemen.

Baina, badiot, Arginzonizek inoiz lortzen du idazkera bat ekonomikoa, idazkera bat emozionala baina ez astuna. Pilotaren ibilbidea “ikusi” egiten da batzuetan, haren inguruan espazioa –frontoia– zein aktoreak –pilotariak– daudelarik. Topikoen artean, beraz, originaltasuna ere kausitu daiteke. Mundu zoro honen erdian jalgi da filosofoa, eta filosofia egiten ahalegindu denean ez du lortu helburua. Poesia deskriptiboarekin, oster, harrapatu egin nau estetak. ■

Igor Estankona



Liburu azoka

Ondarroan, uztailaren 19tik 28ra Alamedan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi
irakurriz!*

GIZEN, LODIKOTE PERTSONAIA- REN IZENA	...	EGIN, ERA- BAT BUSTI NOREKIN ATZIKIA	LOKARRI, LOTURA	 ZALDI ERO	TRUKE HIRUSTA	INTERJEK- ZIOA ERTZAINZA- KO KIDE	MAILA BERETIK GIZAKIAREN AZALA (PL)
PILA, MORDO JANTZI MOTA (PL)					OINARRIZKO EDARI KUTXA HANDIA		EZ EME MUSIKA ESTILOA
			TURKIAKO ALDERDI POLITIKOA GAS NOBLEA		ANTZEZLARI OIHU EGINEZ		
TONA HUTSUNE BAT HARTU	MINGOTS PERTSONALA- REN ABIZENA					...-ZART, KOLPEA LEKU OROTAKO	
			EPOPEIARI DAGOKIONA BIDALDIA				BI BOKAL PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA
ELBARRITU, BALDITU	ALDE BAT ERE EZ			BOBINAK ANTZINAKO URREZKO MONETA			
					ONTASUNEZ AKORDIO BATEN AGIRIA		NEKADURA
HERRI HIZ- KERAN, ZER UR MINERAL BEROZKO BAINUA		DUT 1501 ERROMATAR ZENBAKIZ				SANTUREN APOKOPEA ETXEKO ERREGAI	
			KAKAGURA ZAKUR				
ELEMENTU KIMIKOA ANAIIDIA				PETARDO- SORTAK ENERGIA			
						PILOTA JOKOAN JAR- TZEA	

	Z	M			T	U	P
M	I	K	E	L	T	R	F
P	I	L	O		U	R	A
G	N	A	K	A	A	K	T
B	E	T	E	N	K	O	R
		A	L	B	O	H	A
H	E	B	A	I	D	U	N
Z	E		D	A	K	A	T
T	E	R	M	A	K	A	G
A	N	A	I	A	R	T	F



Menchu Galen bizitza, lana eta lagunak

KUBO ARETOAN sartu baino lehen, panel zabal batek iragartzen du Menchu Galen (1919-2008) erakusketa. Margolari irundarraren izena, erakusketaren izenburua eta ez bat, ez bi, artistaren hiru lan jarri dituzte ohelean: paisaia, natura hil eta erretratu bana. Erakusketaren esku-orrian berdin: beste paisaia bat, beste bodegoi bat eta Mercedes ahizpari 1939an egindako erretratu, egilearen kuttune-netakoa.

Gustuko omen zuen erretratuak pintatzea, bereziki pertsona inteligente eta interesgarriak. Natura hilak ez zitzaizkion hainbeste gustatzen; natura bizia zuen jomuga. “Bodegoi bat margotzea lan egitea da; paisaia bat margotzea bizitzea da” esan ohi zuen.

Sartu eta pareko horman hainbat erretratu ikus daitezke. Bigarrena Menchu Galena da eta ezker-eskuin Picassoren eta Dalíren erretratu bana dauzka. Guztira beste artisten 19 obra bildu dituzte erakusketan, hala nola Aurelio Arteta, Pancho Cossio, Antonio López, Carmen Laffón, Fernand Léger edo Gaspar Montes Iturriozena. Azken horrek Galen obran izan zuen eragina ukaezina da, irundarrak maisu izan baitzuen. Baina besteen kutsua ere erraz ikusten da, besteak beste, artelanak ipini dituzten ordenari esker. Erakusketaren izenburuak iradokitzen duen moduan, Galek



Menchu Gal.
Paris eta Madril artean

Erakusketa **Non:** Kubo aretoa, Donostia.
Noiz: irailaren 1a arte.

Parisko eta Madrilgo abangoardien eragin nabarmena izan zuen. Obren datei erreparatuta ikusten da hasierako obrak figuratiboagoak zirela, lerro lotuagokoak eta kolore apalekoak, grisez beteak. Urteek aurrera egin ahala, ordea, marra askeagoak antzematen zaizkio, forma kiribila-goak, kubismoaren eta expresionismo abstraktoaren ildotik hurbil. Koloreen bilakaeran, aldiz, faubismo ukitu bat ikusten da, eta erakusketan Matisseren obra bat gehitu izanak baieztatzen du eragin koloretsua.

Gaztelako zelai idor horixkak edo Ibizako etxe zuriak ez dira kolore ez tandaren adibide garbiak. Baina Menchu Galek sorterriko paisaiak margotu zituen nagusiki. Eta *Hondarribiko arrantzontziak* (1975) olioan, esaterako, garbi antzematen kolore bizien kontras-

tea. Baita *Masusten natura bila* (1965) ederrean ere. *Txanbila kolore beltzetan* (1964) bodegoian aldiz, koloreak ez dira nabarmentzen (tituluak adierazten duen moduan), bai, ordea, forma kubistak.

80 olio inguru ikusi ondoren, erakusketa ez da oraindik amaitu. Menchu Galek oso azkar lan egiten zuen eta 2.000 olio eta akuarela baino gehiago osatu zituen. Erakusketa batean ibilbide oparo hori bil-tzea ez da erraza. Horregatik, Kuboko areto nagusiaren alboan dagoen gela urdina ezusteko ederra da bisitariarentzat. Bertan margolariaren zenbait marrazki, akuarela eta ur-bortitz bildu dituzte. Akuarelen artean bat aukeratzekotan, *Loreak* natura hilak eman digu atentzioa. Egilea ziurrenik ez zatekeen hautuarekin gustura egongo, paisaiei eta bodegoiei buruz zeukan iritzia aintzat hartuta.

Nestor Basterretxeak dio Menchu Gal “emakume aske, indartsu eta boteretsua” zela. Eta konbentzigarria, ziurrenik. Erakusketaren amaieran, 1980ko hamarkadan margotutako *Iparraldeko ur-bortitzak* saileko ale bikainek konbentzitu gaituzte: Menchu Galen natura hilek ez dute pasaia bizien distirarik.. ■

**Nagore
Irazustabarrena**





Euskal Herria ezagutuz

IRUÑEA

Euskaldunen hiri buruzagia

Horixe idatzi zuen Etxeberri Sarakoak duela 300 urte Iruñeari buruz, behiala gure hiriburu nagusia izan baitzen, bai eta arras euskalduna ere. Hiriaren lehen izenetik toki-izen gehienetaraino, ezin konta ahala eraikin, txoko eta karrika daude alde edo moldez euskarari lotuta, Iruñean bertan sortu berri den Labrit Tours turismo-zerbitzuko gidarien eskutik ohartuko garen bezalaxe.

| KIKE DIEZ DE ULTZURRUN |

SAN FERMIMEN IRUDIA dagoen San Lorentzo eliza ondotik abiatutik, inguru horretako hainbat kalek euskal izena izan zuten Erdi Aroan: Arriasorantza, Zakudinda edo zakugileen kalea, Urradinda edo urregileen kalea, bai eta Sanduandia ere, bertan dagoen baselizako Ama Birjinaren irudia handia delako. Han bertan nekazarien kofradiaren ospitalea zegoen, eta iruindarrek kofradiari “laginobrari” esaten zioten.

Hiriaren ipar harresira joanen gara, hurbil baitago. Ederki ohartuko gara hasierako Iruñea hura muino baten gainean eraikia zegoela, Arga ibaiak babes-tua. Ederra da ikuspegia; gure begiradapean Arga eta erreka bazter zuhaiztuak daude, iparraldeko auzoak (Arrotxapea, Txantrea), hainbat herri (Artika, Antsoain, Berriozar...) eta mendi-kasko aunitz; lehena, Ezkabamendi; urrutiago, Sarbil, Txurregi, Beriain, Artxueta... Aurtengo eurien eraginez uzta atzeratu bada ere, garagarrak eta gariak horaildu egin dira eta hasia da agorraldia. Urteroko kontua. Ez da euskarari egotzi ohi zaion kolorea ageri —kolore berdea, alegia—, bestelakoa baizik. Urtero bezala, Iruñerriko

mendiak gorritu eta bazterrak oro idortuko dira, hemengo nekazari guztiak euskaldunak zirenean gertatzen zen bezala. Horrelako paisaia lehorrak ere baditu euskarak, baditu Euskal Herriak, maiz ahaztu egiten bazaigu ere.

Larreko-ren urratsen xerka

Harresi-lerroari jarraiki, Santo Domingo aldapara iritsi eta eskaile-ra mehar pikoak igoko ditugu Nafarroako Museora iristeko. Lehenago,

Erdi Aroko Iruñea zatitu hartako burguetako bat izan zen San Saturnino, gaskoiz eta okzitaneraz mintzo zen jendeak jendeztatua

ospitala izan zen, eta gerra garaian, nor eta sendagile euskaldun bat izan zen bertako zuzendaria; hots, Pablo Fermin Irigarai *Larreko* euskal idazle auriztarra. Urte hits eta latz haieran bizi izandakoak eta sentipenak *Gerla urte gezur urte* liburu mardulean idatzi zituen, sekretuan idatzi ere. Izenburua guztiz adierazgarria da. Altxamenduak, jakina, errotik

moztu zuen euskararen aldeko mugimendua, eta giro hura ikusita, euskara Nafarroa Garaitik erabat desagertuko zela pentsatzen zuen eta Iparraldetik ekarri beharko zela Hegoaldera.

Santo Domingo aldapan gora joanen gara, ez noski zezenen adinako abiaduran, eta eskuinaldeko eskailerak igota, Erdi Aroko San Saturnino eliza agertuko zaigu, hiri-ko euskaldunek Jaun Done Saturdi erraten ziotena. Erdi Aroko Iruñea

zatitu hartako burguetako bat izan zen San Saturnino, gaskoiz eta okzitaneraz mintzo zen jendeak jendeztatua, baina hizkuntza horiek itzali zirenean, euskara guztiz zabaldu zen burguhorretan, San Saturninoko eliztaren hizkuntza nagusia izateraino, apez batek XVII. mendearen erdialdean idatzi zuen bezala: aitortzera etortzen zaiz-

kidan ehun pertsonatik laurogeita hamarrek euskaraz egiten dute aitorpena. Elizatik hurbil, hainbat moldiztegi zeuden eta XVIII. mendean euskarazko hainbat liburu argitaratu ziren. Sebastian Mendi-bururen *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai*, adibidez, *Iruñeko libruguille Juan Antonio Castellaren echean* (1760).



Zumakalarregiren atea edo Frantziako atea, hiriaren ipar harresian.



PEDRO TAPIAS-BASKIMAGEN



PEDRO TAPIAS-BASKIMAGEN

Ezkerrean, San Saturnino eliza. Eskuinean, katedralaren aurrealde neoklasikoa.

Erresuma zaharraren diru-kontuak

Eliza zedarritzen duen Ansoleaga karrika meharrean gora, ezkerraldean Zaldiko Maldiko euskal elkarte ospetsua utzi eta Comptos Ganberaren eraikinaren parera ailegatuko gara. Gezurra badirudi ere, Iruñeko tokirik garaienean gaude. Iruñeko etxe zibil gotiko bakarra da eta, bertan, mendez mende, Erresuma zaharreko diru-kontu publikoak aztertu eta begiratu zituzten. Nafarroa probintzia huts bihurtu zenean, ordea, Kontuen Ganbera desagertu eta eraikin horretan bestelako erakundeak aritu ziren. XIX. mendeko Euskara

Elkargoak, esaterako, hantxe egiten zituen batzar nagusiak. Han elkartu ziren, beraz, Campion, Iturralde y Suit eta makina bat iruindar euskaltzale, urte sail luzean. Honatx elkargoaren asmoak, Mercaderes karrikako Lorda moldiztegiaren inprimatzen zuten *Euskara* aldizkarian 1878an agertu bezala: “...asmoak dira gordeztea, galtzera utzi gabe, ta edatzea aldaitequen gucian euskarazko mintzaira”. Eraikin berean, gainera, gerra ondoko lehen euskaltegi publikoa zabaldu zuen Nafarroako Diputazioak 1950ean, euskararen akademia izenarekin. Urtebete eman zuen Kontuen Ganberan, gero katedral ondoko merkataritza eskolara eraman baitzuten, bigarren urtean ikasle kopurua handitu zelako.

“Batzuk badoaz, besteok bagatoz”

Ansoleaga kalean atzera egin, Francisco Seminarioren

pasabide estalitik Udaletxe plazan agertu eta Txapitela karrika aldapa-tsua joko dugu, hantxe oihal denda bat izan baitzuen Joan de Amendux iruindarrak, XVI. mendean. Haur zelarik umezurtz geldituta, aitatzik Erriberara eraman zuen, eta gero Zaragozara, ofizio bat ikasteko; gaztearen bizitza, ordea, ez zen onbideratu. Elegia ezagun bat idatzi zuen, bere bizimolde zorigaiztokoaren adierazgarri: *Hemen natza ortzirik*. Txapitelan, bestalde, Arturo Campionen etxea dago. Bere bizitzaren azken urteetan hainbat omenaldi egin zizkioten, euskararen alde 80 urtean egindako lanaren esker onean. Halakoetan pentsamendu batek iluntzen zion gogoak: “Bizitza osoa eman dugu euskararen galera geldiarazi nahian, baina batzuk badoaz, eta besteak ez datoz”. Hau da, euskaldunak hiltzen dira eta berririk (haurrik, gazterik) ez dator. Iruñeko lehen ikastolako haurrek omenaldia ere egin

Ansoleaga karrikan antzinako Comptos Ganbera dago. Nafarroa probintzia huts bihurtzeaz geroztik, eraikin horretan bestelako erakundeak aritu dira

zioten Txapitelako etxean, 1934ko udaberrian, eta ekitaldi horrexek gure Campion xaharra biziki poztu zuen, haurrek plaka hau oparitu baitzioten: “Batzuk badoaz, baina besteok bagatoz”.

Ondoren katedral aldera joko dugu, gure ibilia Nabarrerriako iturriaren ondoan pausatzeko. Nabarrerria auzoa iruindarren lehen bizilekua izan zen. Han historiaurreko aztarnak agertu dira, hura ere lehen muino harresitua izan zen, baskoien hiri nagusia, erromatarren garaiko boteregunea, Erdi Aroan errotik suntsitua eta berreraikia. Garai batean, Zugarondo plaza erraten zitzaion, zumar handi bat zegoelako. Plaza erdian, egun, uraren murmurioa adituko dugu, iturria, sormen-iturria, parean Alexander Tapia Perurena euskal olerkaria jaio baitzen, bere gurasoek gobernatzen zuten argizari, kandela eta txokolate dendaren altzoan.



Garai bateko Comptos Ganberaren egoitza, Iruñeko tokirik garaienean.

Ciga, Agerre, Laboa...

Gorago, katedralerako bidean, Javier Cigaren sortetxea ikusiko dugu; pintore euskaltzalea, hamaika margolan ezagunen egilea, Sanferminetako kartel ugariren sortzailea, Iruñeko zinegotzia. Eta are gorago, katedralaren parean, Dormitaleria eta Kuria kaleen artean, Jose Agerre euskal idazle eta kazetaria jaio zen, txupinazoari *zirtapumpa* esaten ziona, kulturaz jantzia, eleanitza, dotorea, liburutegi handi baten jabea. Larreko, Tapia Perurena, Ciga, Agerre... 1936ko uztailaren 18tik aitzinera jasan eta ikusitakoen ondorioz, sormena lantzen jarraitzeko gogorik gabe gelditu ziren haietako batzuk. Bidenabar, katedralaren aurre-

aurrean geldirik gaudela, fatxada neoklasikoari erreparatuko diogu. Fatxadak ez du zerikusirik batere barnealde gotikoarekin. Bertako artxiboan euskarari *lingua navarrorum* erraten zaion agiria agertu zen. 1167. urtekoa da.

Bukatzeko, katedralaren saihesten batean dagoen San Jose plaza txiki zuhaiztura iritsiko gara, guztiz aproposa udako bero zakarrean egoteko. Urte sail luzean merkataritza eskola bertako eraikin batean egon zen, eta eskola horretan arestian aipatu dugun euskaltegi publikoa. Euskaltegiko ikasleen artean, gazte donostiar bat zebilen, Iruñera medikuntza ikastera etorritakoa, haur denborako euskara higitua

berreskuratu nahian. Mikel Laboa zuen izena. Plazako etxe bateko bigarren solairuan, bestalde, gerra ondorengo lehen ikastolaren bigarren urtea iragan zen, 1966-1967 ikasturtean. 30en bat neskato-mutiko ziren, egun euskaraz ikasten duten milaka haur eta gaztetxo iruindarren aitzindariak eta azken hamarkada hauetan Iruñean izandako euskal loraldiaren abiaburuetako bat. ■



Bisitatatu ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Iruñeko Planetarioa
Antso Ramirez kalea, z/g Iruñea
www.pamplonetario.org

Garñoakoak luze joko du

GAROÑAKO zentral nuklearraren aurkako borrokan aritzen direnetako batzuk ospakizunetan ikusi nitue-nean orain sei edo zortzi hilabete, sentipen arraroak izan nituen; ez bainuen uste botere ekonomikoek, besterik gabe, beraien deskoordinazioak eragina, hain erraz etsiko zutenik.

Zentrala itxita dago, baina hori iragarri zutenek ere garbi adierazi zuten arrazoi ekonomikoengatik itxi zutela, Espainiako Estatuko energiaren lege berriak ezarritako betebeharren ondorioz. Eta esan zuten hurrena zera izan zen: “Ea nola moldatzen dugun legea zentrala berriro martxan has dadin, segurtasun arazorik ez dago eta”.

Une batzuetan pentsatu izan dut zentrala kudeatzen duen Nuclenor enpresaren eta Madrileko administrazioaren arteko deskoordinazio arazoak izan direla azken hilabete hauetako gertaeren arrazoi nagusia. Ardatz horri Europatik segurtasun nuklearraren inguruan datozen arauak erantsi behar zaizkio.

Faktore askok baldintzatuko dute, dudarik gabe, Garñoako etorkizuna; denbora aurrera joan ahala faktore berriak, aurreikusi gabeak, azalduko dira. Botere ekonomikoak praktikotasunaren eremuan kokatuko du eztabaida, hau da, zentrala segurua da eta krisi ekonomiko garaia ez dira egokienak horrelako energia bideak bazterrerara uzteko. Argudio berdinak erabiliko dira zentralaren aurka egiteko: segurtasuna ez da inoiz nahikoa izango, eta ekonomikoki ere zentralak, itxi ondoren, gastua eragiten segituko du hondakinen ondorioz.

Urtebete luze dute agintariak legedia aldatzeko eta Garoña abiatzeko, eta gauzak asko aldatzen ez badira Garoña abiatu egingo da; izan ere, lerro hauetan behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, zentrala ixtea gauza bat da, eta beste bat eraitea. Lehen teknikoki erraza da, bigarrenak ez du konponbiderik oraindik. Beraz, Garñoakoak luze joko du, oso luze. ■



EL CORREO



ELORRI ZURIA

Garñoako zentralaren aldeko (goian) eta aurkako (behean) mobilizazioak.



Zergatik ikusten dugu gehienetan zerua urdin?

Eguzkitik datorkigun argia, Lurrera ailegatu bitartean, argi zuria da, baina atmosferan dauden partikulekin talka egitean hainbat osagaitan deskonposatzen da. Hala, oskarbi denean urdin ikusi ohi dugu zerua. Prozesu hori nola gertatzen den oso ongi ikusten da ondoko loturako infografian.

ttiki.com/52744
(Frantsesez)

Ardoa hipertentsioaren aurka

Tucumaneko Unibertsitate Nazionaleko (Argentina) ikerlari talde batek, Salta eskualdeko ardoak aztertu ondoren, ardo batzuetan hipertentsioaren aurkako ezaugarriak dituzten peptidoak identifikatu dituzte. *International Journal of Food Microbiology* aldizkarian argitaratu dituzte ikerlanaren emaitzak.

ttiki.com/52745
(Gaztelaniaz)

Intsektu-plagen aurka, intsektuak

Intsektu-plagen aurka substantzia kimikoak erabiltzen dira gehienetan, baina sistema horrek nahi gabeko ondorioak izaten ditu. Hori horrela, zientzialariak beste arma batzuk probatzen ari dira. Erantsitako loturan, labezomorroen aurka liztorrak nola erabili azalduko dizute.

ttiki.com/52746
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Ezki lorea

MATRICARIA CHAMOMILLA, larranbiloa etxeero da. Izango zen. Orain ere dene-tan balitz hobe bai. Noiz edo noiz urdaila baretu beharra izan-go da. Euskaldunon botikinean ezaguna behintzat bada, eta gure imaginariotik ez dugu erabat erauzi.

Botika kutxa horretan larranbiloak lagun ugari du: pasmo-belarra (*Anagallis arvensis*), berbena (*Verbena officinalis*), belar bedeinkatua (*Valeriana officinalis*)... Landarearen izen zientifi-koan azaltzen den *officinalis* horrek adierazten du dendetan, batez ere botiketan, eskuratu daitekeela, hau da, sendabelarra dela.

Larranbiloa bezala, belar bedeinkatua ere infusioan har-tzen da gehienez. Baita ezki lorea ere, *Tilia sp.* Bi dira, gurean, ezki ezagunak: ezki hostozaba-la, *Tilia platyphyllos*, eta ezki hos-totxikia, *Tilia cordata*. Bien lorea erabili izan da egoskin, baina



WAUGSBERG-CC BY SA

Ezki hostotxikia, *Tilia cordata*.

lehenarenak jasotzen ditu lore eta ele ederrenak.

Etxe inguruetan landatzen zen, baina baita herri lurretan ere. Lore ederrenak ematen zituzten zuhai-tzen adaxkak hartu eta landatzen ziren. Herri lurretan egonagatik landatzen zituenarenak ziren landa-reak, eta belaunez belaun igarotzen zen jabetza. Mila urtetik gora ere bizi daiteke ezkia, eta luze bizitzen dela adierazteko, Asturiasen honela diote: “*La teya crece durante cien años, vive cien años y tarda cien años en morir*”.

(Ezkia ehun urtez hazi, ehun urtez bizi eta ehun urtez hil-tzen da). Uda hasieran lora-tzen dira, hostozabala lehen-xeago. Orain azoketan oso noizbehinka ikusten bada ere, garai batean baserrita-rrek kalera eramaten zuten mozkinetako bat zen. Sasoi hartan makina bat jende ibil-tzen zen ezkietara igota ada-rrak inausten. Gero, etxera ekarri eta egurra sutarako izaten zen, hostoa hazienda-ren bazkatarako eta lorea lehortzera jartzen zen airea berritzen den toki ilun batean zabal-zabal eginda.

Erdipurdiko egurra du, lehen harientzat txirrikak eta jostailuak egiteko baliatzen zen, baina bere ikatzak bazuen erabilera jakin bat: ehizarako bolboratarako.

Egun hauetako bero handiekin loreak harro daude polena heda eta heda. Udako usain lodiak aire sapan. Ezkiarena limoi edo jasmin tankerakoa, gaztai-nondoarena (*Castanea sativa*) min edo garratz punttuare-kin. ■



210

Kaltzioa osasunerako nahitaezkoa du gorputzak. Etxean behin baino gehiagotan mahairatu dute gaia emakumeek, eta esnea omen kaltzio gehien ematen digun elikagaia. Ez bada, zerba –bai, bai, zerba (*Beta vulgaris* subesp *cicla*)– da onena; oneneta-koa behintzat bai. 100 gramoko, esneak 113 miligramo kaltzio baditu, zerbak 210. Ia bikoitza! Gainera, zer-bak ekoitzi edo esnea, alde ekologiko ederra dago! ■



JAVIER MARTIN

Zerba (*Beta vulgaris* subsp. *cicla*).

Diruak ez du kiratsik; detergenteak, aldiz, bai



TIDBITS FROM ARCHAEOLOGY

Stephanusen *fullonica* edo garbitegia, Pompeian.

PONPEIA, K.O. 79. URTEA. Vesubio sumendiaren erupzioak ustekabeen harrapatu zituen erromatar hiriko negozioak; besteak beste, Stephanusen *fullonica* edo garbitegia. Azarnategiko gainerako elementuak bezalaxe garbitegia oso ondo kontserbatu zuten errautsek. Eta badira ondo iraun duten beste *fullonica* batzuk ere; esaterako, Ostiakoa, Barcinokoa eta Herkulankoa. Izan ere, erromatar hiri edo kolonia guztiek *fullonica* bana zuten gutxienez.

Jantziak nahiz etxeko arropa garbitzen zituzten negozio haietan. Detergente kimiko artifizialik ezean, gernua erabiltzen zuten; pixa garaiko garbigarri unibertsaltzat jo genezake, sail honetan bertan azaldu bezala hortzak garbitzeko ere erabiltzen baitzuten. *Salus fullonica* edo ur berri-tze istiletan gernuaren amoniakoa ona zen togetako, tuniketako eta artilezko zapietako orbanak kentzeko. Gernua kareaz eta errautsez nahastu zuten, lehengai horiek zurigarri naturalak baitira.

Pixa guztiak ez ziren berdinak. Batzuek atzeritik inportatzen zuten —hispaniar gernuaren dohain garbigarriak ezagunak ziren—, baina gehienetan komun publikoetan bildutako likidoa erabili behar zuten. Baziren negozio autarkikoagoak ere; dendaren hormetan anfora erdiak jartzen zituzten oinezkoek maskuria arindu

zezaten. Pompeian idazkunak aurkitu dira, herritarrei pixa egiteko gonbitea egiten dietenak.

Soda eta gernua nahastuta, eskla-boek jantziak eta oihalak zapaltzen zituzten, detergente kirasdunaz ondo busti arte. Orbanak kendu ondoren, arropak kanpoan zegoen istil handiago batera eramaten zituzten, eta *impluvium*-ean bildutako euri uretan pasatu, xukatu eta eguzkitan lehortzen zituzten. Herritar aberatsenak txanpon batzuk gehiago ordaindu eta *fullonica*-ko eskla-boek arropak lore eta belar esentziez lurrindu zizkieten, pixa usainaren arrastoak ezabatzeko itxaropenez.

Dirua edozein jardueratatik biltzeko grinak bultzatuta, Vespasiano enperadoreak garbitegiak edo letrina publikoetan herritarrek uzten zuten gernuaren gaineko zerga ezarri zuen. Suetoniok jaso zuenez, enperadorearen seme Titok erabakia itsustu zion aitari. Vespasianok, orduan, *aureus* bat ateratu zuen poltsatik eta urrezko txanponaren usainak gogaitzen ote zuen galdetu zion Titori. Semeak ezetz esan ondoren, aitak zera erantzun zion: “Eta, hala ere, pixatik dator”. Orduan sortu omen zen *Pecunia non olet* (Diruak ez du kiratsik) latinezko esapide ezaguna. ■



Arrastoak

Zergatik ez dago aita santu bizardunik?

INOZENTZIO XII.A (1615-1700) bizarra hazten utzi zuen azken pontifizea izan zen (beheko irudian). Lehenago Inozentzio X.ak ere ahuntz bizarra izan zuen. Paulo V.ak, Klemente VIII.ak, Leon XI.ak eta Urbano VIII.ak, aldiz, bizar sarriagoa zuten. Beraz, aita santu bizardunak ez ziren salbuespena.

Baina eliza katolikoak luza-roan moral gabetzat jo zuen bizarra, egindako bekatuak adierazten zituela uste baitzen; harrigarria, Jesukristo bera gehienetan bizarrak irudikatu izan dela kontuan hartuta.

Kontua da 1119an, Tolosa-ko Kontzilioan, aurpegiko ilea hazten uzten zuen elizgizon oro eskumikatzea erabaki zutela. Debekua ez zen luzaroan indarrean egon, eta edozein hierarkiatako elizgizon bizardunak izan ditugu geroztik. Richelieu kardinal ezaguna, konparazio baterko.

Baina ia 900 urtetan aita santu bat bera ere ez da ausartu aurpegiko ile bekatariak hazten utzi eta eliztarren aurrean *look* berria erakusten. ■



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

MIGUEL SÁNCHEZ-OSTIZ

«Gerra zibila ez da iraganeko gaia»

Emilio Molak eta enparauek 1936ko udatik aurrera indarrean jarri zuten “eskarmientua” azaldu digu Miguel Sánchez-Ostizek (1950, Iruñea) *El Escarmiento* (Pamiela) liburuan. Dagoeneko literaturaren alorrean bide luzea egin duen idazle iruindarrak, oraingoan lan historiko bikaina osatu du. Prosa ederra baliatuz, 1936ko altxaldi faxistarekin batera errepresioa nola sortu, garatu eta justifikatu zen argitzeaz gain, egungo gizartean horrek guztiak izan duen oihartzuna deskribatu du sakontasunez.

| JOSU CHUECA |

Argazkiak: Josu Santesteban



“1985ean hasi nintzen gaiaz idazten, baina nire irudiko, orduan nuen jarrera itxurakeriak jota zegoen. Ezaugarri politikoak erantzirik, alde literario edo estetikoak bakarrik lantzerantz nindoan”.

Berriro “gera puta” horretaz aritu behar izatea. Ibilbide literario oparo eta luzea duen idazlea zergatik sar-tzen da eremu historikoan, lan ikara-garri hau osatzeko?

Alde batetik, garaia zelako eta bes-tetik, urte anitz neramalak gerrari buruzko lan historikoa burutu nahian. Azken finean, hemen txiki-tatik bizi izan dugun zerbait da. Gure gogoan beti egon da. Oroi-tzen naiz, herritik etortzean, Erre-niegatik igarotzen ginenean “goa-zen *Aita gure* bat otoi egitera” esaten zigutela. Zergatik hori? Edateko ur txarra zuen aska haren ondoan Iruñeko jendea hil zutelako. Hon-darribira joaten ginenean berdin. Lantzeko pinudiaren parean beste *Aita gure* bat otoi egin behar. Jende guztiak zekien hori, eta baita beste gauza asko ere: Orikaingoa, Urba-sako leize zuloenak... Nik horien berri 11 urterekin izan nuen, Bakai-kura joaten ginenean dena konta-tzen baitziguten.

Baina Nafarroan familia artean eta kalean kontu horiek oso hedaturik izan arren, gaiari ez diozu orain gutxi arte heldu.

1985ean hasi nintzen horretaz idaz-ten, gai horretaz oso aberatsa zen biblioteka oso bat Sarasate paseale-kuko zabortegei batetik eskuratu nuenean. Hasi nintzen ikertzen norena zen eta azkenean gaian mur-gildu nintzen. Irakurketa asko abia-tu nituen, orduan idatzita zegoen guztia: bai biblioteka horretatik eskuratutako liburuak –gehienak kanpoan argitaraturikoak–, baita hemengo betiko idazleenak ere, frankistekin bat egin zutenenak: Iribarren, Pascual, Foxa...

Eleberria idazteko asmoz hasi nintzen, Iruñeko falangisten giroa islatu nahian, eta zeregin horretan hemeroteca lan handia egin nuen, ohar eta fitxa askorekin. Baina nire iduriko, orduan nuen jarrera itxura-keriak jota zegoen; gerraren garai-leak zurrizteko oso erabilgarria suer-tatu zitekeelakoan nago. Ezaugarri politikoak erantzirik, alde literario edo estetikoak bakarrik lantzerantz nindoan. Eta hori ez da iruzurra, baina aldi berean bai. Foxak eta hemengo idazle batzuek, García Serranok kasu, oso ongi idazten zuten. Hori

aitortu beharra dago. Baina era berean, ez zuten aukera galtzen egundoko basakeriak idazteko, bata bestearen atzetik. Ongi izkiriatzen zuten eta Nafarroak zituen bi idazle hoberenak falangistak genituen: Rafael García Serrano eta Angel Pascual. Bakoitza bere estiloarekin.

“Pentsatu nuen ‘jende horrek merezi du’. Sentitu nuen zorretan geundela horiekin guztiakin, nire buruari ere zerbait zor niola”

García Serranoren tankera tremen-dista ona da baina izugarritzko nazka ematen du. Aldi berean, orduko eta gaurko Nafarroako gizartea ezagu-tzeko gako asko eskaintzen dizkigu, batzuetan xehetasun txikien bitar-tez. Zera idatzi zuenean esaterako: “Sanferminetan etena, baina gero guztiak hilko ditugu”. Edo Iruñeko jolastokietan zegoen nahasketa politikoaren berri ematen zuenean. Larraina kiroldegiko giroa deskriba-tzen zuenean, korronte desberdine-tako politikariak han elkartzen zire-la zihoen, baina gero, gerra zela medio, alde kontrajarrietan lerroka-tu zirela. Hori nik txikitatik ezagutu dut. Iruñeko alde zaharrean zegoen jende nahasketa, poteoan, hainbat elkartetan eta abar. Gero, une batzuetan, lehertu egiten da. Esate baterako, Jurramendikoa gertatu zenean.

“Orain gertatzen ari denarekin, esaterako Falangeak kazetari horren kontra jarritako salaketarekin, ikusten ari gara premia handia dagoela gaiari ekiteko”

Eleberria idazten hasi nintzen arren utzi egin nuen. Baina 2005ean berriro ekin nion *Molari lapurtutako egunkariak* lanarekin. Hori ere oso aurreratuta nuen, baina nire orduko argitaletxeak Molari buruzko beste liburu bat lehenetsi zuen. Nire libu-

rua baztertu egin zuten, eta mesede egin zidan, bide okerretik nenbilela-ko. Urte haietan ahal nuen guztia irakurri nuen. Hemerrotekan lan ika-ragarria burutu nuen eta 80ko hamarkadan egindakoa baliatu nuen. Dena den, gai horretan era-bat murgiltzeko azken akuilua


Ezka-bako gotorlekura egin-dako ikustaldia izan zen, duela urte pare bat. Hor izan nituen bisita-kide, beste batzuen artean, Fortunato Agirrerren alabak, Tomas Dorronsorren semea, Mara-villas Lambertoren ahizpa, Larragakoa... Pentsatu nuen “jende horrek merezi du”.

Sentitu nuen zorretan geun-dela horiekin guztiakin, nire buruari ere zerbait zor niola. Gerrara ez zen egin behar hurbilpen bibliofiloa edo negozioa ekar zezakeena, zeren hori ere gertatzen ari da.

Zure lanak Herbert Southworthen gerrari buruzko idazlanak gogoratzen dizkit. Iturri desberdinak erabili ditu-zu, hemerografikoak, liburuak, artxi-boetako agiriak... kontrastatuz. His-toria ofiziala bere lekuan jartzeko erabili dituzu. Zeintzuk izan dira eta zein balorazio egiten duzu tresna horien inguruan?

Alde batetik, hemengo egunkarien irakurketa zorrotza burutu nuen. *Diario de Navarra* zehatz-mehatz irakurritz gero, berri laburren ata-lean, Gizarteko berrietan, iragar-kietan... atzeguardian gelditu zen hiri baten historia osoa aurkituko dugu. Eta hor gertaera ikaraga-riak dira. Marino Huderri, esate baterako, kartzelaratu zegoen bitartean eta baita fusilatua izan ostean ere, bere kontsultaren iragarkiak argitaratu zizkioten. Edo Negrillosek eta Raimundo García Garcilasok Badajo-zera egindako bidaia, fran-kistek egundoko triskantza burutu ostean; bidaia horren berri Gizarteko berrietan eman zuten.

Bibliografiari dagokionez, nola edo hala aurrera eraman dut, baina ez sakontasun askorekin. Hainbat gauza ez daude. 1936ko abuztuko egunez dokumentazio dezente ere



“Ez nago Manhattanen edo Madrilén, hiriburu horretako gizarte literarioan eta *El Jarama*-ren antzeko zerbait idazten. Ez, Iruñean nago, nire jendearekin bizitzen”.

galdu nuen, lana hasi ondoren. Artxiboen artean, Nafarroako Artxibo Nagusia oinarritzkoa izan da; haren barruan dago Gerra Batzordearen sekzioa. Iruñeko Udal Artxiboa batez ere argazkiak eskuratzeko erabili dut. Oso funts aberatsa dute, orain gutxi gerrari buruzko argazkien beste bilduma handi bat eskuratu dute, baina oraindik ikusteko dugu. Udal aktak ere begiratu nituen eta hainbat gauza ikaragarri azaldu dira, biktimen senideei egin-dako mespretxuak, esate baterako.

Horietan oinarritu naiz, eta ahal izan dudán tokiraino iritsi naiz. Ez dut egin liburu erabat osatua, ez dut historiagileen eremua zapaldu nahi izan. Beste liburu bat gehiago da. Ez

da auzi historiko honetaz behin betiko liburua izanen eta ez dut inolaz ere pentsatu “nire atzetik inor ez”, nahiz eta hori oso hispanoa izan. Nik uste dut gauza anitz daudela oraindik idazteke eta orain gertatzen ari denarekin, esate baterako, Falangeak kazetari horren kontra jarri duen salaketarekin, ikusten ari gara premia handia dagoela gai horri ekiteko.

“Idazten ari diren eleberri edo antzeko lanen arabera, ematen du denek erail zutela, ez zegoela ez onik ezta gaiztorik ere”

Gerra zibila ez da iraganeko gaia. Orain arte ezin izan dugu gai horretaz idatzi behar den bezala, ez *Causa General*-aren kontra, ezta historia edo kontra-historia ere. Garzónen saiakera edo antzeko beste zerbait, baliagarria izanen zen dokumentazio multzo handia eskuratzeko, epaileen aginduz artxibo guztiak irekitzeko... baina ezerezean geratu da. Horren guztiaren aurka egon den jokaera maltzurak eta fede txarrekoak argudio gehiago ematen dizkit historia edo kontra-historia lantzeko.

Zure blogaren izenari helduz, “gogo handiz” ikertu duzu gai hau?

Nekagarria izan da. Baina berriro esan nahi dut sarritan errepikatu dudana: niri gai edo auzi honek nekea sorraraztea edo eragitea, ezin da konparatu aitona edo aita errepresioagatik galdu zutenak bizi izan diren hunkidurarekin. Horrek aztoratu egiten nau, batez ere auzia oso gertukoa dugulako. Ez nago Manhattanen edo Madrilén, hiriburu horretako gizarte literarioan eta *El Jarama*-ren antzeko zerbait idazten. Ez, Iruñean nago, nire jendearekin bizitzen, nire hurbilekoekin, nire familiarekin, auzokoe-kin, ikastetxean nirekin ikasi zutenekin... Hori dela eta, batzuetan gogo handiz idatzi dut, bestetan aldiz, nekez. Asko kostatu zait liburua idaztea.

Dena den ematen du zor hori ordaintzeko edo gertatutakoa behar zen bezala lantzeko berandu iritsi garela, ezta?

Bai, oso. Behar zen garaian—Franco hil ostean— ez zen landu behar bezala. Gai honi ekin zion bakarra José María Jimeno Jurio izan zen eta bitxitzat jo zuten. Era berean, herrietako jendea hagitz mugitu zen, hilobiak irekitzeko, hildakoen gorpuzkinak berreskuratzeko... baina horrek guztiak ez zuen oihartzun handirik izan. Are gehiago, horren berri zabal-tzen bazen berehala zectorren kondena edo lelo mespretxagarria: “Horiek separatisten gauzak dira”. 80ko hamarkadan oraindik jende asko bizi zen epaitegietara deklaratzera

eraman zitekeena. Baina hori ez zen egin eta dagoeneko ez du konponbiderik.

Orain dokumentalak, kronikak edo eleberriak egin ditzakegu, baina horiek ere kontu handiz. Duela gutxi, Vicenç Navarrok elkarrizketa oso on batean zioenez, gerra zibilarri buruzko narratiba edulkoratuegia suertatzen ari da. Idazten ari diren eleberri edo antzeko lanen arabera, ematen du denek erail zutela, ez zegoela ez onik ezta gaiztorik ere. Legalitate errepublikanoa ere baztertuta geratzen da, eta ahanzten dute gerra zibila alde zaureratik erabat planifikatuta zegoela, jardun militarren gainetik egundoko errepresioa eragiteko, batez ere.

Historiaren arloan ere antzematen duzu antzeko jarrera, nolabaiteko errebisionismoa?

Hor daude Pío Moa eta enparauak. Uste dut Nafarroako Unibertsitatean ere gerra zibilarri buruz idazten jarraitzen dutela eta katedra horietatik gazteriaren artean doktrina sortzen eta gorpuzten ari direla; euren jendearen artean, beraien giroan, onarpena dauka. Hemen burbuiletan bizi gara. Norbera bere lubakian bizi da eta errebisionismo horren garrantziaz ez gara konturatzen edo gutxietsi egiten dugu.

Zer nolako jarraipena emango diozu liburuari? Dagoeneko aipatu duzu *El Botín* prestatzen ari zarela.

Bai, kontakizuna 1937ko ekainean bukatuko da. Horretarako nire euskarriak honako hauek izanen dira: frankistek Bilbo hartu zutenekoa, Molaren heriotza eta Falangearen



“80ko hamarkadan oraindik jende asko bizi zen epaitegietara eraman zitekeena. Baina ez zen egin, eta dagoeneko ez du konponbiderik”.

eta karlismoaren bateratze dekretua. Horiek dira idazlan horretarako aurreikusten ditudan mugarrak. Ez da izanen oraingo liburuaren bigarren zatia, jarraipena baizik. Gaurkoaren eta atzokoaren arteko dialektika uztartu eta hainbat arlorekin jokatu dut. Esate baterako,

“Norbera bere lubakian bizi da eta errebisionismo horren garrantziaz ez gara konturatzen edo gutxietsi egiten dugu”

Iruñeko eguneroko bizitzatik nola bizi izan zituzten gerraren hainbat gertaera, nahiz eta urrun samar izan, bonbardaketak kasu.

Ez dut 1937az geroztik luzatuko, baina agian, beste estilo batekin, historikoa ez den idazkera batekin, animatu naiteke idaztera gaurko ikuspegitik orain gertatzen ari diren hainbat gauzez beste libururen batean. Izenburua badut dagoeneko, karlisten kanta batetik hartua: *Moriremos nosotros también* (Gu ere hilko gara). ■







Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.







BIZKAIA BIZIA

Leialtasuna agintean dagoenaren arau alda daiteke

Seaska, Iparraldeko ikastolen federazioa, borroka gorrian ari da enegarrenez. Falloux legea izan da azken okupazioaren (Baionako PSko egoitza) eta mobilizazioen leherrarazlea. Lege hau eskola laizistaren –publikoa– eta katolikoaren –pribatua– arteko desakordioak trenkatzeko sortu zen 1850ean. Harrigarria bada ere, Frantziako Estatuak lege zahar hori baliatzen du –suprefetaren bidez– ikastolek betetzen duten zerbitzu publikoa ukatzeko.

| MIKEL ASURMENDI |

HENDAIKO IKASTOLAK –Gure ikastola izenekoa– eraikin berri bat eskatu dio Herriko Etxeari, aspaldi eskatu ere, bere 400 ikasleak era duinez egokitzeko. Udalaren diruz eraikitako lehen egoitza 1994koa da; Hapetenia karrikan dago. Egungo auzapez Battitte Salaberri zen ikastolako presidentea orduan. Auzapeza, berriz, Raphaël Lassalette (PS) zen. Udal talde sozialista hartan ere Kotte Ezenarro hautetsia zegoen, finantzaio arduraduna. Ezenarrok 2001ean hartu zuen auzapez kargua; Lassalletteren segida. 2008ko bozetan, Salaberrik (Bateginik Aintzina) Ezenarro (Ezker Anitza) garaitu zuen ustekabea. Etxegintza izan zen udalerriko agintaritzaren aldaketaren eragile nagusia.

Eraikin berria behar

1994an egungo ikastolaren eraikina zabaldu orduko txiki geratu zen. 2001ean, Ezenarrok berak –auzapeza jada– arazoari irtenbidea emanen ziola hitzeman zuen. Hitza eman zuen ere Salaberrik, 2008an. Euren asmoa ikasleak bi egoitzetan egokitzea zen, egungoan eta berrian; 200 ikasle bakoitzean. Dongoxenia auzoan aurreikusi zen proiektua. Egitasmoa denboran ainguratu zen, ordea. Izan ere, ikastolak udaletxean –Gobernuan zein oposizioan– ditu “arerioak”; Ezenarroren nahiz Salaberriren taldean. Hots, herriko bozetarako zerrende-



DANI BLANCO

“Kotte Ezenarrok ez du jakin une erabakigarri honetan, euskararen alde garen guztiekin bat egiten” erran digu Battitte Salaberri auzapezak.

tan –Ezenarroren eta Salaberriren zerrendetan– ezker, eskuin, zentro, berdeak edota abertzaleak daude. Udalbatzan, talde nagusi bi hauez gain, Biharko Hendaia dago; ezker abertzalearen ordezkaritza, Iker Elizalde hautetsi bakarra izaki. Ikastolaren afera ulertzeko 2014ko udal bozak kontuan hartu behar ditugu,

baita iazko ikasturtearen hasieratik Gure Ikastolak berak aurrera eramane dituen desmartzak. Halaber, komenigarria da, iragan berri horretan hiru hautetsi bereziki aipatzea. Claude Vieira (Le Parti de Gauche) lehenik. Frantses eskola publikoko irakaslea. Lassalletteren eta Ezenarroren udal taldeko hautetsia izan

zen, eta legealdi honetan Salaberriren taldekoa –lehen axuanta– iragan urtera arte. Izan ere, Sallaberrik ikastolarentzako eraikin berria gauzatzeko egitasmoa mahai gainean jarri zuen unean, Vieirak dimisioa eman zuen. Hitz bitan: Vieira, Jules Ferryren jarraitzaile sutsua da, jakobinista izateaz gain. Salaberriren hitzetan, bere taldean sartu zenean, ikastola berria eraikitzeak oniritzia eman zion. Gero hitza jan zuen. Richard Beitia da beste hautetsia. Eskuindarra. Auzapez izatea helburu duena, Vieira bezala, euskararen eta ikastolen kontrakoa. Ez dira bakarrak. Harrigarria bada ere, Salaberriren taldeko zortzi hautetsik egitasmoaren kontrako boza eman zuten; apirilaren 25ean bozkaturak. Egitasmoak kontrako 14 boz jaso zituen. Ezenarriren taldekoenak beste seiak. Ikastola berriak 17 boz izan zituen alde, 15 Salaberriren taldekoen bozak, eta beste biak Jean Baptiste Etcheberriren –Ezenarriren taldekoa– eta Elizalde abertzaleenak. Bi abstentzio izan ziren, auzapezaren taldekoenak.

Eraikin berria –Behobide etorbidetan– gehiengoz onetsia izan zen. Udalbatzak Patrick Dallennes suprefetari proiektua helarazi zion –Hollanderen aro berriko lehen suprefeta–. Honek egitasmoa legez kanpokotzat jo zuen, Falloux legearen “estakurua”. Galdera bi jalgi zaizkigu, bi gutxienez. Baga: 1994an ikastola eraiki bazen, orain zergatik ez? Biga: Estatuak Seaskaren hainbat sail onartzeaz gain, ekonomiko ki laguntzen badu, zergatik debekatzeko dio Herriko Etxe bati tokiko ikastola eraikitzea?

Galdera horien erantzunak Frantziako Estatuak hezkuntzan eta hizkuntzari buruz daraman politikaren baitan daude. Erreportaje honen asmoa, berriz, udalerri honetan hautetsiek euskararekiko –ikastola tarteko– duten jarrera kontrajarria azaltzea da. Esaterako, Ezenarrok “udal gobernuaren adostasun eza” aurpegiratu dio Salaberri. Horixe omen da, bera egitasmoaren aurka egoteko arrazoietako bat.

“Kotte Ezenarrok ez du bere taldekoen adostasuna bultzatu, alderantziz, ados zegoena isilarazi du”

Bakartxo Arrizabalaga
Bateginik Aintzina-ko hautetsia

Ezenarro versus Salaberri

Bakartxo Arrizabalaga hautetsia da (Bateginik Aintzina), euskararen arduraduna. Hautetsi honek ez du udal taldeen kontraesanak ukatzen: “Hauteskundeetarako zerrendak komenigarritasunaren arabera osatzen dira. Beitia, adibidez, ez da euskararen aldekoa. Gure taldean ere kontraesanak daude, noski. Bagenekien gai honetan zaila izanen zela aurrera egitea. Harri koskorak jan ditugu. Euskararen gaia lekuko”.

“Euskarak baditu aldekoak eta kontrakoak, horren isla da ikastolaren proiektuari buruzko bozketa” erran digu. Hau da, euskara ez da neutroa, nahiz eta neutralizat jo dai-

tekeen jendea izan bada, bakan batzuk halere. Arrizabalagak ez du Ezenarriren jarrera “ulertu”, ez onartu, noski. Printzipioz, Ezenarro euskararen aldekoa baita. Auzapez ohiairen jarrera azaltzen duen gertaera bat azaldu digu: “Ezenarriren kide Suertegarayk ikastolaren eraikinaren kontra bozkatu zuen 1994an. Gizartean euskararen aldeko bilakaera nabarmena izan da hoguei urteotan, eta orain, udalbatza prestatzeko aurreko bileran alde bozkatu zuela adierazi zigun”. Suertegaray baina –eskola publikoko irakaslea hau ere–, bozketa egin zen kontseilu egunean ez zen bertan egon, Ezenarri “ahalorea” eman zion eta haren boza aurkakoa bihurtu zen: “Ezenarrok ez du bere taldekoen adostasuna bultzatu, aitzitik, ados zegoena isilarazi du” dio hautetsi honek.

Herrian bolo-bolo dabil uste hau: “Beitia datorren urteko bozetarako bere hautagaitza prestatzen ari da, baita Ezenarro ere. Euskararen kontrako bozak bildu nahi dituzte. Batek eskuineko bozak eta besteak ezkerrekoak. Euskararen kontrakoenak betiere”.

Ezenarrok egitasmoaren kontra egoteko argudio gehiago eman digu ordea: “Ni ez naiz kontra. 1994an beste era batez landu genuen ikastolaren proiektua. Gu alde gaude, txostena lantzeko eraren aurka gaude. Salaberri dorpeki ari da, txostena ez baita arauen arabera eginga”. Areago: “Vieirak lehen, Beitia orain, suprefetari idatzi diote proiektua ez dela legezkoa erranez, irregulartasunak dituela. Beraz, Salaberrik ikastolak, denak, arris-



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fernán Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



GAIZKA IROZ

“Ikastolaren alde egiteko prest naiz, baina ez Salaberri borrokalari arriskutsuaren alde. Gainera, biktima ausartaren rola jokatzeko”, erran digu Kotte Ezenarrok.

kuan jarri ditu, eta gainera biktimarena egiten du. Arazoak bere taldean ditu”.

Arrizabalaga, Etxeberri edota Elizalde, egitasmoaren aldekoak, udalbatzako hiru taldeen ordezkariak, proiektuak teknikoki akatsak dituela onar dezakete. Hasteko, diotenez, berau ongi taxutu behar duten hautetsiek proiektuari trabak jartzen dizkiotela. Alabaina, hori ez da arrazoi nahiko, Ezenarrok egitasmoaren aurka horren sutsu aritzeko. Elizalde honela mintzatu zaigu: “Hauteskundeak heldu den urtean izateak badu zerikusia. Ikastola manipulatzeko joera dute bi aldeek, ‘guk egin dugu ikastola politena, egokiena’ esateko. Proiektua hauteskunde logikaren gainetik dago guretzat”. Biharko Hendaiaren hautetsiaren esanetan, alde tekniko eta finantzazioa kritikatu daiteke, baina Ezenarroren taldeak —finantzazioa dela, poliza bat dela, lekua dela...— dena baliatu du kontra egiteko.

Ezenarrok hurrengo bozak irabaziko balitu, antzeko proiektua ez ote lukeen aurkeztuko galdetu diogu berari, legearen aplikazioa subjektiboa baita: “Falloux legea nahien arabera interpretatu daiteke.

Ados. Baina nola saihets dezakegu legea proiektu kaskar horrekin? Suprefetak berau ikusi eta aulkitik erori da. Finantziarioa alde edo moldez eginen dela dio txostenak. Arriskuak ez dira gainditzen ausarta

“Ikastola manipulatzeko joera dute bi aldeek, ‘guk egin dugu ikastola egokiena’ esateko. Guretzat proiektua hauteskunde logikaren gainetik dago”

Iker Elizalde
Biharko Hendaiako hautetsia

zarelako. Ni ikastolaren alde egiteko prest naiz, baina ez Salaberri borrokalari arriskutsuaren alde. Gainera, biktima ausartaren rola jokatzeko. Vieirak eman zion lehen ezpata kolpea eta Beitiak estokada, ez guk, bere axuantak baizik”.

Bistakoa da: Ezenarrok ez bide ditu auzapez zenean jaso omen zituen zartak aiantzi. Orbainak irekiak ditu, ez ditu sendatuak antza:

“Mitterranden garaian ikastola altxatu genuen guk, Lassalette auzapez zelarik. Neroni auzapez nintzela, ikastola handitzen lagundu genuen”. Ezenarrok ez du udaletxe-ko aulki nagusitik “bota” izana aiantzia. Berak dioenez, etxebizitza sozialaren alde egin zuen. Etxegintzaren uhin erraldoia Hendaiaren zabaldu zenean, egur galanta jaso zuen Salaberri buru zuen oposizio-tik. Orain, berak, irudiz, “odolkiak ordainetan” legea aplikatu nahi du: “Aizu, guk hainbat egitasmo aurrera atera (Hirigintza Tokiko Plana) eta poliziak bi orduz galdezkatuak izan ginen oposizioaren salaketa zela medio. Prebentziozko atxilotetak jasan genituen, hirigintzako teknikaria erradiadore batean lotua ikusi dut nik”. Gogor jo omen zuten bere kontra. Auzapez zenean —honen aurreko legealdian—, hainbat proiektu zapuztu zioten, baita burua makurrarazi ere: “Orain beren proiektuaren alde jartzea nahi dute? Zergatik aurkeztu dute berau agintaldiaren bukaeran? Vieirak ni nahi izan ninduen akabatu, baina ez zuen lortu. PSTik kanpo bota genuen. 2008an Salaberriren taldean sartu zen. Salaberrik Vieiraren sostengua baliatu zuen auzapez bihurtzeko, baina bizkarra eman zion ikastola eraikitzeke unean. Nola egin daiteke horrekin akordio bat?”

Gardentasuna eta adostasuna

Gardentasun eta adostasun lema bere egiten dituzte politikariek. Horiakin denak leialak omen dira agintzen dutenean: “Kotte Ezenarrok ez du politikoki goi-mailako begiradarik ukan. Alderantziz, epe motzera jokatu du. Euskara gai politikoa dela? Ados. Alabaina, nork bere interes politikoak bazter uzten jakin behar du. Ezenarrok ez du jakin, une erabakigarri honetan, euskararen alde garen guztiakin bat egiten. Iraganeko aferak ekarri ditu mahai gainera, funtsean, heldu diren urteko bozak buruan dituelako. Auzapez izan nahi du ororen gainetik”. Egungo auzapez Battitte Salaberriren hitzak dituzu horiek. Zenbat buru hainbat aburu. Zuk zurea eginen duzu, irakurle. ■





TRINITATE PLAZA

- 25 21:00 **26€**
Cuadernos de Jazz-ek aurkeztuta
The Swallow Quintet
Jorge Pardo: **Huellas XL**
- 26 21:00 **28€**
Dave Douglas Quintet
Pharoah Sanders
- 27 21:00 **26€**
China Moses & Raphaël Lemonnier *
Buika
- 28 20:00 **30€**
Youn Sun Nah Quartet
Hiromi: **The Trio Project**



* Trinitate Plazako kontzertua bateraezina da ordutegian Kursaaletako Masada Marathonarekin, azken horren gutxi gorabeherako iraupena dela medio.

KURSAALEKO AUDITORIOA

KUTXABANK GUNEA

- 26 18:30 **20€**
(2013ko Donostiako Jazzaldia Saria)
Lee Konitz Quartet
- 27 18:00 **67€**
John Zorn: Masada Marathon *
- 28 17:30 **62€**
Diana Krall



* Masada Marathonaren gutxi gorabeherako iraupenak bateraezina egiten du kontzertu horretara joatea Trinitate Plazako emanaldietara joatearekin.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

SKODA GUNEA

- 25 18:30 **12€**
Vijay Iyer Trio
- 26 24:00 **20€**
Sílvia Pérez Cruz



BASQUE CULINARY CENTER

- 25 28 14:15 **50€**
Esperientzia gastronomiko eta musikala:
Iñaki Salvador

INFORMAZIOA: www.heinekenjazzaldia.com
ERRESERBAK: www.bculinary.com - 902 540 866

MUGARITZ

- 26 18:45 **30€**
Cocktail Jazz: **Matija Dedic**
- 28 18:45 **30€**
Cocktail Jazz: **Erik Friedlander**

INFORMAZIOA: www.heinekenjazzaldia.com - 943 48 19 00
ERRESERBAK: www.heinekenjazzaldia.com



SAN TELMO MUSEOA

SKODA GUNEA

San Telmoko gauak:

- 25 24:00 **10€**
Agustí Fernández-Aurora Trio
- 26 24:00 **10€**
Beñat Achiary
- 28 23:00 **12€**
Uncommon Deities



ABONUAK

Trinitate Plaza: **80€**
Kursaaletako Auditorioa: **120€**
San Telmo Museoa: **24€**

SARREREN SALMENTA

Sarrerak salgai daude, www.kutxabank.es eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatilan (11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara).

ETA GAINERA:

Jamie Cullum, Elvis Costello & The Imposters, !!! (chk chk chk), Belle & Sebastian, Shibusa Shirazu Orchestra, Nothing Places, Capsula, Gregory Porter, Robert Glasper Experiment, Gabacho Maroconnection, Trio Reijseger/Fraanje/Sylla, Igelaren Banda, Ola Kvernberg Trio, Belako, North Atlantic Jazz Connection, No Güeif Quartet, Pablo Campos Trio, Borja Arias Trio, Jerónimo Martín Sexteto, Seminal Jazz, Iñaki Diéguez: *Birak*, Gregario de Luxe, Buffalo, Makala Jazz Funk Band featuring Oihan, Roberto Nieva with Strings, Eladio Díaz & Natanael Ramos Quintet, Sky Beats, De 2 en Blues Band, La Prima Janis, Belceblues, Naica, Gallinero All Stars, DJ Slow, Paul San Martín, Four Corner Quartet, DJ Pablo Sánchez, Satxa Soriazu-Jorge Abadías: *Zuri*, Maldatakull, Makala Jazz Funk System, Gallinero All Stars, DJ Ana Sinatra Presley, Global Funk DJ: Arka, Global Funk DJ: Makala, DJ Ishmael Sustravibez, Katuarraiki, DJ Javi Bayo, DJ Kubik, DJ Pablo Sánchez, DJ Teenage Caveman, Ayo Silver! DJs, DJ Katza...



“EUSKARAREN BERRESKURATZEA” LIBURUA

Euskarak hezkuntzan muturra sartu zuenekoa

Hezkuntzak egunerorako hainbat konpetentzia eskaintzeaz gain, bestelako funtzioak bete ditzake, galtzeko bidean dagoen hizkuntza berreskuratzeko tresna izatea, adibidez. Hala dio Garabide Elkarteak *Euskararen Berreskuratzea* bilduman argitaratutako liburuxka berriak.

| IURE EIZAGIRRE |

HIZKUNTZEN biziberritzearen alde lan egiten duen Garabide Elkartea duela laupabost urte hasi zen *Euskararen Berreskuratzea* bilduma argitaratzen. Azken 50 urtetan euskara bultzatzeko egindako lana jasotzea du helburu, hizkuntza gutxitudun beste komunitate batzuei lagungarri izan dakiekeelakoan. Alberto Barandiaran bildumaren koordinatzailearen esanetan, “gure esperientziaren berri eman nahi dugu, asmoa ez da beste toki batzuetan gauzak nola egin behar diren esatea”.

Aurreko lanetan euskara berreskuratzeko gakoak, euskararen estandarizazioa eta hedabideak izan dituzte hizpide. Laugarren honetan, *Euskararen Berreskuratzea IV: Hezkuntza* liburu eta DVDan –ARGIAk egin du azken hori–, irakaskuntza da gaia, administrazioarekin eta hedabideekin batera, hizkuntza biziberritzeko hiru oinarrietako bat dela uste baitute.

Maiz hizkuntzak baztertzeko tresna gisa erabili izan dira eskolak. Europan edo Mendebaldeko zibilizazioetan, gutxiengoaren hezkuntza estatuaren batasunerako traba dela uste izan da, estatuak hizkuntza nagusia irakatsi dute zentroetan, eta komunitate elebidunak edo hizkuntza gutxitudunak elebakartasunera bultzatu dituzte.

Gurean, ikastolak ardatz

Euskal Herrian hezkuntza gauza ugariaren abiapuntu izan da. 1960ko hamarkadan hasi ziren ikastolak sor-



MYRIAM GARTZIA

Argazkian, Amurrioko Aresketa Ikastolako haurrak 1996ko *Araba Euskaraz iragartzen*.

tzen eta haien atzean zegoen gogoe-
ta zen euskararen galerari galga jarri
eta berreskurapena lantzen hasteko-
tan, ezinbestekoa zela irakaskuntzan
sartzea. Barandiaranen ustez, "hez-
kuntza oso lotuta dago transmisioa-
rekin, hizkuntzaren sendotzearekin,
estandarizazioarekin, prestigioare-
kin, kulturizazioarekin. Ondorioz,
ezinbestekoa ikusten zen euskara
irakaskuntzan sartzea".

Klandestinitatean sortuak, trans-
misioa ziurtatzeko baliabide gisa
eratu ziren ikastolak. Lokal hutse-
tan biltzen ziren ikasleak, materialik
eta formakuntzarik gabeko irakas-
leekin. Francoren diktadurak ezarri-
tako irakaskuntza zurrunarekin edo
ordena erlijiosoeekin zerikusirik ez
zuen hezkuntza bultzatu nahi zuten
gurasoek. Ondorioz, sentiberatasun
ezberdinetako jendea erakarri zuten
ikastolek. Auzolana zuten oinarri
eta herri edo auzo berean euskaraz
ikasi nahi zuten seme-alaben guraso
taldeak batuta, lokala alokatzen
zuten. Gero bilatzen zuten irakas-
lea. Euren hileroko kuotarekin edo
antolatutako ekitaldietan ateratako-
arekin ordaintzen zituzten gastuak.
Gurasoek zeresana izan zuten hezi-
ketan, materiala eta irakasleak auke-
ratzeko garaian, esaterako.

Hirietan hedatu ziren ikastolak
eta euskararen alde zeuden gaztela-
niadun familia askotako haurrak
joaten hasi ziren. Bi abiadurako ira-
kaskuntza eragin zuen horrek,
etxean gaztelaniaz ziharduten
umeek ezin zutelako euskara haur
euskaldunek bezala ikasi.

Ikastolen garapenak aurrerapau-
soak ematera behartu zituen era-
kunde publikoak. 1983ko Parla-
mentuko legeak EAEko haurrei
euskaraz eta gaztelaniaz ikasteko
eskubidea bermatu behar zitzaie
onartu, eta hizkuntza ereduak ezarri
zituen: A, B eta D.

Nafarroan 1986ko Euskararen
Legeak eman zuen eskola publikoe-
tan euskarazko irakaskuntza ezar-
tzeko bultzada, baina lurraldea hiru
zonaldean banatuta dago eta egun
oraindik, bakoitzak bere hezkuntza
politika du. Iparraldean, berriz,
ikastolak dira euskaraz ikasteko ia
aukera bakarra.

Hezkuntzan administrazioa
pauso bat atzerago ibili izan dela

aitortu du Barandiaranek: "Hemen
herri ekimenak abiatu eta eman ditu
lehen urratsak eta mugimendu hori
gabe, hau da, herri kontzientzia eta
bultzada gabe, nekez berreskuratu
daiteke hizkuntza. Administrazioa-
ren laguntza ezinbestekoa da horrek
arrakasta izan dezan baina haren
bultzadarekin bakarrik, ez luke arra-
kastarik izango. Beraz, bien arteko
batuketara behar da".

Murgilketa sistema, euskalduntzeko tresna

Euskal Herriko ikastoletan zein
ikastetxe publikoetan murgilketa
sistema gailendu da azken urteetan.
Eredu horrekin, haurrak etxeko
hizkuntzan eskolatu beharrean,
bigarren hizkuntzan matrikulatzen
dituzte eta etxeko hizkuntza irakas-
gai gisa dute. "Euskara oso eremu
gutxitan da nagusi Euskal Herrian
eta irakaskuntzara heltzen diren
haur askok gaztelania dute lehen
hizkuntza. Gure kasuan, frogatuta
dago murgilketa eredu delako euskal-
duntzen duen bakarra. Murgilketa
sistemak hizkuntza prestigiatu egi-
ten du, ez du bigarren mailako hiz-
kuntzat hartzen eta horri esker,
ikasleek nahiko konpetentzia lor-
tzen dute hizkuntza erabiltzeko, eta
ez eskolan bakarrik", azaldu du
Barandiaranek.

**Eskola bat eratzean curriculumak
erabakitzea izan ohi da lehen
urratsetako bat. Gurean
alderantziz egin zen, euskararen
galera etetea baitzen
lehentasuna**

Hala ere, badira derrigorrezko
heziketa amaituta, euskaraz aritzeko
nahikoa gaitasun ez duten gazteak.
"Hori da gure arazoetako bat.
Horrek frogatzen du eskolak lagun-
tzen duela euskara bereganatzen,
baina berak bakarrik ezin duela
dena egin", dio liburuaren egileak.
Eragile askoren ustez, une honetan
aldaketa garaian gaude, ikasle gehie-
nek euskaraz ikasi ahal izatea ziurta-
tua, erabilerari begiratu eta euska-
raz bizi ahal izateko aukerak
sortzeko garaia da.

Bi hizkuntza ikastea ahalbidetu
ez ezik, hirugarrena ikasteko erraz-
tasuna ematen du murgilketa siste-
mak. Egun, ingelesa derrigorrezko
ikasgaia da sare publiko osoan eta
ordu kopurua ereduaren eta ikaste-
txeen arabera aldatzen da. Ikasto-
lek, aldiz, Eleanitz egitasmoa gara-
tzen dute. Euskara lehentasun
izanik, umeak 4 urterekin hasten
dira ingelesa ikasten, adin horretan
hizkuntzak bereganatzeko errazta-
sun handiagoa dutelako.

Curriculumak: zer erakutsi?

Hizkuntza eta nortasuna berresku-
ratzeko ez da aski hezkuntza euska-
raz izatea, erakusten denak eta ikus-
puntuak ere garrantzia du. Gazteek
16 urterekin zein konpetentzia eta
ezagutza izan eta zein balio eta
jarrera lortu behar dituzten erabaki-
tzean datza curriculumak. Eskola
bat eratzean hori erabakitzea izan
ohi da lehen urratsetako bat baina
gurean prozesua alderantzizkoa
izan zen, euskararen galera etetea
baitzen lehentasuna.

Urteak igaro dira ikastolaren
inguruko eragileak Euskal Curicu-
lumaren alde lanean hasi zirenetik,
eta euskal hezkuntzaren oinarrieta-
ko bat bezala definitzen du Baran-
diaranek: "Euskal Herrirako, Eus-
kal Herrikit eta Euskal Herrian

egindako curriculumak
transmititzeko eskola
sortu behar da". Hala ere,
Euskal Herriak banaketa
administratiboaren arabe-
rako curriculumak ditu:
Nafarroan eta EAEn
curriculumaren %55
Espainiako Gobernuak
erabakitzen du eta %45
erkidego bakoitzeko

administrazioak; Iparraldean,
berriz, Frantziako Estatuak zehaz-
ten du osorik.

Duela gutxi izan da aurrerapau-
sorik arlo horretan, izan ere, Eki
proiektua garatu dute. Euskal Curri-
culuma garatzeko 2013-2014 ikas-
turterako ikasmateria landu dute,
oraingoz DBH1erako egokitua.
Lanarekin jarraitu eta
datozen urteetan gaine-
rako mailetarako mate-
rialak argitaratzea aurrei-
kusten dute. ■





Oñatiko Laixan Euskara Taldea betiko itxi da

2009AZ GEROZTIK Oñatiko (Gipuzkoa) Laixan Euskara Taldea geldirik zegoen. Taldearen etorkizuna kolokan jarri zuen arrazoi nagusia ordezko falta izan zen. Orduko taldeko kideen esperantza lantaldera kide berriak gerturatzea zen, baina ez da horrelakorik gertatu. Lau urtez elkarte geldialdian egon eta gero betiko ixtea erabaki dute. Joan den astean ondasunen likidazioa egin zuten. Ondasun materialak Oñatiko Udalarri eman dizkiote eta dirua berriz, Seaskari, Euskalerrria Irratiari, Debaguneko euskara elkartei eta Berria Taldeari.

EAEn, Uemako udalerrietako pediatren %62k ez daukate hizkuntza eskakizuna egiaztatuta

UEMAK azterketa egin du, jakiteko Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean dauden herritarren hizkuntza eskubideak zenbateraino urratzen diren osasun zentroetan. Oinarriko osasun zerbitzuak aztertu dituzte, familia medikuak eta pediatriak. EAEn, Uemako 57 udalerrietatik 28tan arazoak dauzkate hizkuntza eskubideak bermatzeko. Familia medikuen %37k eta pediatren %62k ez daukate beharko luketen euskara mailarik. 27 udalerritan familia medikuekin arazoak dituzte eta 15 udalerritan pediatriekin. Adibidez, Zarautzen 14 medikutatik 9k ez daukate hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Ondoko zerrendako herrietan berriz, haurrek eta gurasoek ezin dute euskaraz egin pediatriekin, bakar bat ere ez delako euskalduna: Azpeitia, Aduna, Oñati, Deba, Lekeitio, Oiartzun, Usurbil eta Aramaio.

Nafarroan eskubide urraketa larriagoa da. Uemako kide dira 14

udalerri eta horietako bakar bat ere ez da gauza oinarriko zerbitzu guztiak euskara hutsean eskaintzeko. Berakoa adibide esanguratsua da: familia mediku eta pediatriekin derrigorrez gaztelaniaz egin behar dute. Ia haur guztiak euskaldunak diren 14 udalerrietan zazpi pediatria daude eta lauk ez dakite euskaraz. Beste modu batez esanda, pediatren %71k ez daukate euskaraz hitz egiteko gaitasunik. Familia medikuen egoera hobexeagoa da. Dena dela, 14 udalerrietatik hirutan medikuak erdaldunak dira.

EAEko Osakidetza 2005-2011 euskara plana bukatu du eta emaitzak duela gutxi jakinarazi dira. Eman nahi zituzten urratsen %30 bete gabe geratu dira. Osakidetza-ko langileen %75ek ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatu. Nafarroako Osasunbideak berriz, ez dauka bere burua euskalduntzeko politikarik.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Aita santua, immigrazioa eta kapitalismoa

FRANTZISKO AITA SANTUAK joan den astean lehen bidaia ofiziala egin du immigranteen egoera salatzeko. Lampedusara joan da, Sizilia hegoaldeko irla txiki hartan ohikoa baita immigranteak lurreratzea. Kalkulu batzuen arabera, azkeneko bi hamarkadatan 25.000 lagunek galdu dute bizia Siziliako kanalean. 2011n Libiako gatazka sortu zenean 2.700 hil ziren. Aita santuak lorez osatutako koroa jaurti zuen naufragioen itsasora. Immigrante afrikarrekin ere egin zuen topo; aldarea patera bat zen; gurutzeta eta kaliza 2011ko udaberriko zorigaiztoko hiru gau haietan iritsi ziren itsasontzi zati urdinez eginda zeuden... Hildako askoren gorpuzkinak futbol zelai ondoko memoriaren hilerrian daude oraindik. Keinuak toki onean uzten du aita santua.

Immigranteen minaren aurrean “mendebaldeak duen egoismoa” kritikatu zuen eta “globalizazioaren axolagabetasunaren” kontra egin. Salatu zuen “munduan dagoen krudeltasuna, guregan, eta anonimoki erabaki sozioekonomikoak hartuz halako dramei

bidea irekitzen dietenengan”. Barkamena eskatu zuen, “mundu mailan hartutako erabakiekin halako egoerak eta dramak sortu dituzten horien orde”. Baina aita santuak ez zituen erantzukizunak zehaztu eta aukera ederra galdu zuen kapitalismoaren eta bere kudeatzaileen putzak agerian uzteko.

Ez dira erabaki anonimoak. NMFk, MBk, EBk, AEBek, Errusiak, Txinak, Indiak eta abarrek sortzen dituzte halako dramak. Instantzia zehatz horiek dira gerra eta gatazken arduradun, beraiek dira hirugarren munduko natur baliabideen lapurretaren erantzule, eta beraien erruz sortu dira gosete eta izurriteak. Euren erabakien ondorioz milaka immigrante itsasora doaz biziraun nahian. Kapitalismoak izen zehatzak ditu. Frantzisko aita santuak badaki. Eta munduan duen eragiteko gaitasuna ikusita, ekinbide ebanjelizatzaile ona izango litzateke izen eta abizenekin salatuko balitu!

Juan Mari Arregi



Eta Bilduk lortu zuen Gipuzkoako errauskailua gelditzea

2013ko uztailaren 12an Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa (GHK) partzuergoa gobernatzen duten Bilduko hautetsiek Zubietako Artzabaletan aurkeztu zieten herritarrei beren erabakia, noizbait baso izan eta gaur paisaje estralurtar bilakatuan: hor ez da errauste plantarik eraikiko aurreko agintariek erabakitakoak legea urratzen duelako.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

Argazkia: DANI BLANCO

AINHOA INTXAURRANDIETA GHK partzuergoko presidenteak administrazio kontseiluko kidez inguraturik atzean zeukan zulo handiari begiratzeko zion behin eta berriro bertako obrak geldiarazteko agindua justifikatzen duten lege urraketak aipatze-rakoan.

Hobi handi horretan joan behar omen zuten, Eusko Jaurlaritzak emandako ingurumen baimen integratuak onartu bezala, errauskailuak zaborrak kiskalitakoan sortu behar zituen eskoria solidoak eta erraus toxikoak tratatzeko azpiegiturak... gero 2011n enpresa talde bati emandako kontzesioan desagertu direnak. Desagertze hori gehi zorua hiru metro goratu izana, aldaketa handiegia dirudite ingurugiro baimena berriz eskatu eta lortu gabe lanean jarraitzeko, baina inork ez zuen txintik atera, proiektuen jarraipena egin behar duen Eusko Jaurlaritzak ere ez. GHK-ko agintariek erabaki duten arte lanak horrela egitea ilegala dela.

Katez lotua nola askatu

Errauskailuaren kontra luzaz borrokatu diren militanteek ez dute txanpainaz ospatzeko data garbia aurkitu uztailaren 12an. Menturaz proiektuaren itxierak ez du edukiko egun jakin bat, baina zalantzarik duenari GHK-ko buru Intxaurrendietak



GHK-ko administrazioa Zubietan 2013ko uztailaren 12an, proiektuaren gelditzea iragartzen. Zutik Ainhoa Intxaurrendieta, bere eskuinean Imanol Azpiroz presidenteordea, beste aldean Iñaki Errazkin foru diputatua.

Garatik jakinarazi dio errauskailua gelditzeak ez daukala dagoeneko atzerako biderik: “Egia da obrak geldirik zeudela, baina kontratua indarrean zegoen; orain proiektuak ingurumen baldintzak betetzen ez dituela

egiaztatzearekin etenda utzi dugu obrak burutzeko aukera oro”.

2007-2011 legealdian Gipuzkoako Foru Aldundia bezala GHK partzuergoa kudeatu zutenek ahalegin berezia egin zuten errauskailuaren



Gipuzkoako agintari nagusiak 2011n Zubietako obretan. Markel Olano ahalhun nagusiaren eta Odon Elorza Donostiako alkatearen ondoan Karlos Ormazabal eta Denis Itxaso, GHK-ko presidente eta presidenteordea.

asmoa ondo loturik uzteko. Ez dago EAJri eta PSEri gorrotorik eduki beharrik hori nabarmentzeko. Luzaz ilegalizaturik eta are luzeagoz instituzioetatik kanpo egondako ezker abertzaleak Bilduren koalizioan hauteskundeetan parte hartzea lortuta gehien ezustean eskuratu zuenean Gipuzkoan nagusitasuna, aginte makila irabazle berriei pasatzeko bezperetan bi giltzarrapo bereziz kateaturik utzi zituzten lurralde honetako hondakinak. Batetik, errauskailuaren eraikuntza esleitu eta bestetik finantziazioa lotu.

Bilduko agintari berriei egokitu zaie bi urteotan politikari nahiz kudeatzaile hotzena ere eroarazteko moduko labirintua zeharkatzea. Talde bozkatuena bai baina honetan erabat elkar hartu duen oposizioa-

ren aurrean gutxiengoan, lehenik hondakinen eguneroko kudeaketa bermatu, bigarrenik hauteskundeetan agindu zuen errauskailuaren gelditzea mamitzen hasi, horrekin batera plan alternatiboa antolatu, aldi berean herri batzuetan sistema alter-

Bildu ez gainerako alderdiek Zubietako labearen proiektuaren etenaren aurrean azpimarratu dute GHK kiebrako zorian dagoela

natiboa ezartzen hasi, ahaztu gabe egunetik egunera *toreatzea* hedabide nagusien erasoak, gehi herritar askoren haserreak...

Zubietako argazkiarekin GHK-ko arduradunek irudikatu dute heredatu zuten blindajea zultzeko erremintak aurkitu dituztela. Ordainetan, blindajearen truke blindajea, errauskailuaren asmoari arnas berria eman nahiko liokeen edozein bide itxi nahi dutela.

Zeinek ordainduko ditu kalteak?

Bildu ez gainerako alderdiek Zubietako labearen proiektuaren etenaren aurrean azpimarratu dute GHK kiebrako zorian dagoela. Deloitte konpainiaren auditoriak 2012an partzuergoari aitortu ostean 8,8 milioiko etekin positiboa, gehitu diola 46 milioiko galera. "Bilduk GHK zulora darama" deklaratu dute kasik aho batez EAJk, PSEk eta PPK.

Kontua da datozen hilabeteetan asko hitz egin beharko dela GHK-ko kontuez, oraingoz eta lehengoz. Auzitegiak aztertuko ditu La Caixa, Banesto eta Sabadellekin hitzartutako maileguak, funtsean *swapp* produktu espekulatiboak baizik ez direnak. Horiek direla medio, Gipuzkoako herritarrak ari dira ordaintzen gastatu gabeko kredituen interesak benetan inbertituta baleude bezala. Horien sinatzaile nagusia, Karlos Ormazabal orduan presidentea, dagoneko ez dago politikan, baina bere ordeko Denis Itxaso gaur PSEren ingurumen idazkariz gain San Marko mankomunitateko presidente ere bada.

XXI. mendeko krisitzarrak denok ohartarazi gaituenez diru publikoaren garrantziaz, udazken honetako *trending topic* gertatuko dira Zubietako eraikitzaileek eskuratu

Laborantza ekologikoko barazkiak eta fruituak

- Laborantza ekologikoan espezializatuak
- Kosmetika ekologiko eta naturalak
- Tratamentuak
- Bertako barazki eta fruitu ekologikoak
- Zeliakoentzako elikagaiak
- Argaltze terapiak
- Naturopatia eta masaje teknikak



belagorri

Zamakoa 6 · 48960 Galdakao · ☎ 94 600 21 12 | Lehendakari Agirre 9, 48140 Igorre ☎ 94 631 14 39
belagorri@hotmail.com · www.facebook.com/belagorri.herboristerias

Xabier Garmendia Martinezen esku luzea

NON EGON DA Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailburuordetza urte guztiotan? Bestela esanda, bistakoa da Jaurlaritzak izan behar duela ematen dituen baimenen jarraipena egiten duena. Baina Zubietan dena da desberdina eta promotoreak berak salatu behar izan du: “Aizu, nik orain kudeatzen dudana enpresa honek trankila egin duela, baimena eskatu eta lortu ondoren proiektua aldatuta ari zela obrak antolatzen!”.

Nor ote zen obra ikuskatzeko arduradun? 2011ko kontuez ari garenez, Patxi Lopezen agintaldian Ingurumen eta Industriako sailburu izan zen Pilar Unzaluren agindupean ingurumenean bi pertsona eduki zituen Lakuak sailburuordetza: ekainaren hasiera arte Pilar Teran eta data horretatik aurrera arte Arantxa Leturiondo.

Unzaluren beste sailburuordea, industriakoa, Xabier Garmendia zen. Arantxa Leturiondo bezala EIAtik eta Euskadiko Ezkerratik iritsia PSEra. Biek eduki zuten garrantzia ETA(PM) bizirik zegoen garaian. Hemerrotekek bildu dituzte Juan Infanterekin batera Leturiondok polimili preso eta iheslariak bergizarteratzen egindako abokatu lanak.

Handik laster Garmendia azaldu zen Jose Antonio Ardanazaren gobernuaren (1991) organigraman, Jon Larrinaga sailburuarekin ingurumen sailburuorde.

Gobernua utzirik, Garmendiak industria eta inguru-

mena uztartuko zituen. Neuciclaje izeneko konpainia antolatu zuen, bazkide hartuz Bizkaiko pneumatiko eta zemento enpresa handienak, autoen gurrupilak porlan fabriketan hobeto erretzeko prestatzeko, horra pneumatikoen birziklapena zer izan daitekeen.

Era berean FCC eraikuntza eta zerbitzu publikoen multinazionalaren filiala den Cementos Lemonako kontseilari ordezkari ere izan da. Baina hondakinen errausketa eta kudeaketaren arloko lan nagusia DPA aholkularitzatik egingo da.

Gipuzkoako hondakinen plan nagusia, gaztelaniazko PIGRUG siglez ezagutzen dena, Javier Ansorena orduan Foru Aldundiko zerbitzuburuarekin batera sinatu zuen Garmendiak. Gipuzkoako eta Bizkaiko hondakinen plan nagusiak leitu eta alderatu dituztenak bien antzekotasun harrigarrian oinarritzen dira hondakin plan biak benetan Garmendiak eginak direla esateko.

Mundu osoan korporazioen indar handiegia salatzaren dutenek *ate birakarien fenomeno*a aipatzen dute, gaur administrazioan eta bihar multinazionalen ari diren politikari profesionalena. Xabier Garmendia da kasu paradigmatikoa. Berak planifikatutako obrak esleitu zitzaizkion bere enpresari... eta bera zegoen horien fiskalizazioa egin behar zuen Jaurlaritzan. Ondoko sailburuordetza, hori bai, industrian.

nahiko dituzten kalte-ordainak. Erantzukizun eztabaidak berotu dezake udazkena.

Gipuzkoako Deputazioa jokoan

Gerta liteke, gainera, orain GHK-k eraikuntzaren esleipena eten duenean, FCC buru duen enpresa taldeak ere auzitara jotzea. Hala balitz, Gipuzkoako Foru Aldundia eta ondorioz GHK bere gain hartuko lukeen hurrengo agintari taldeak, politikaz gain, epaitegietako bi auzi-

tan katramilatua aurkituko luke Zubietako errauskailua.

Jokoan dagoena, azkenean, Foru Aldundia baita. Bilduk erakunde hori gobernatu du lehen urtean EAJk baimendu ziolako eta bigarren PSEk arnasa hartzen lagata. Orain sozialisten eta jeltokideen itun handia egosi samarra dirudienean, lortuko ote du hirugarren urtea burutzea eta nola?

Gauza bat geratuko da garbi historiarako: Bilduk gelditu gien duela

Gipuzkoako errauskailua, horrekin batera erakutsiz hondakinek badutela bestelako kudeaketa bat. Hori aitortzeko ez dago zertan izanik Bilduren edo Sorturen zale. Lemoiz zen Fukushima bizkaitarra ETAk gelditu zuela esateko ez dagoen moduan ETArekin ekintza bakar bat justifikatu beharrik. Zubietan Bildu hitza betetzen ari da eta gero herritarrak epaituko du. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Euskal hedabideak eta *El País*

RAMON LABAIEN Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua 80ko hamarkadaren hasieraz: “Denok genekiena zen ez gurela benetan Euskal Herrian euskararik. Ez kalean, ez administrazio publikoan, ez komunikabideetan, ez hezkuntzan. Erabateko hutsune bat, *ghettoan* sartuak zeuden denak ikastolak ezik, kaleratzen ari ziren belaunaldien pisua ez zen oraindik nabaritzen” (*Euskal Kulturaren Urtekaria* 1996).

Zenbat gehiago nabaritzen da egun? Zalantzarik gabe, askoz gehiago, baina ez naiz kalekha horietan sartuko. Iritzia, oraingotan, Eurko Jaurlaritzako korridoreetatik dator: “Euskarak aurrera egingo badu, derrigorrezkoa da ezker abertzalea erakundeetan egotea, baita Eusko Jaurlaritzan ere. EAJk ez du izan, ez du eta aurrerantzean ere ez diot ikusten indarrik behar-beharrezko aurreapausoa emateko”.

Eusebio Gorospe ‘Biturie’ itzulpengintzan aritzen den Eusko Jaurlaritzako langileak jaurti du esaldia Munoa blogean. Jaurlaritzaren HPSri kritika zorrotza ere egiten dio. Edukion garrantzia? Datozen lekutik datozelako, izan daitezke goi kargu baten adinakak edo garrantzitsuagoak. Biturie Arabatik blog jeltzalean aritu zen urte luzez eta egun ere EAJko militantea da. Jadanik desagertua dagoen Tiraka blogean ere aktibo jardun zuen. Finean, abertzaletasunaren bi kultura eta korrante handien elkarlana aldarrikatzen du Bituriek, beste euskaldun eta abertzale askok moduan. EAJ eta Sorturen hilaren 3ko bilera publiko entzutetsuan hitz egin zen krisiaz eta bakegintzaz... Hitz egin ote zuten baita ere euskara eta euskal kulturaren egoeraz?

PRISAREN EGOERAZ, hau da, *El País* egunkariaren argitaratzailearen balizko hondamendiaren albiste, Bituriaren ondoren irakurri nuen. Kontua da azken urteetan Prisak lortu duela 5.000 milioi euroko zorra 3.100era jaistea, besteak beste bere jabetza banku eta enpresa handiei salduz, baina hori beste kontu bat da. Albistearen arabera, Prisaren likidezia jota dago eta abuztuan porrota iragar dezake AEBetan. *El País* desagertzeko arriskuan legoke orduan, baina ez da desagertuko, lagun batek dioen moduan, hori Estatu egunkaria delako, eta ez dutelako erortzen utziko. Bankia legez: arrain eta zor handiegia hiltzen uzteko. Eta hausnarketa berehala burura: gure politikari eta instituzioek, euskal hedabideetako zenbat utziko lituzkete erortzen? Baliatu daiteke krisia garbiketa egiteko? Edo, krisia aukera bihurtuz eta sinergiak bilduz, beste urrats kualitatibo baterako baliatuko da?

Instituzioen eta gizarte indarren uztartzetik datoz garapenik emankorrenak

EITBren sorrerara narama hausnarketak, eta bistan da Jaurlaritzaren dirua giltzarri izan zela berau eraikitze, baina orduko protagonistek, besteak beste Labaienek eta Txillardegik zenak, aipatu izan dute instituzio eta gizarte mugimenduen elkarlanak izan zuela garrantzirik 1982ko EITBren sorreran. Ordukoan baino askoz giro bareagoan, hizkuntz normalizazioan instituzio eta gizarteko indarren elkarlana

biderkatze gai ez bagina, seinale txarra. Zientzia politikoak aspaldi dauka demostratua instituzioen eta gizarte indarren uztartzetik datozela garapenik emankorrenak, edozein arlotan, hemen eta Kontxintxinan.

HERRI EKIMENEO euskal hedabideak hutsalak ziren EITB sortu zeneko hartan: *Anaitasuna*, *Argia*, *Jakin*, *Herria* eta irrati txikiren batzuk. Bi hedabide adarren helburua berdintsua zen: informazioa bertako ikusmoldetik landu eta hizkuntza normalizazioa bultzatu. Adar publikoak Jaurlaritzaren milioi pezeta asko izan zuen, normala den gisan; herri ekimenekoek ehunka mila pezeta batzuk, kasurik onenean.


Lerro biak garatu dira harrez gero ikaragarri, bereziki herri ekimenekoa, eta gaur egun antzera dabilta langile kopurutan edota audientzia datuetan, beti ere EITBko euskarazkoak kontuan hartuta; edo, akaso, herri ekimenekoak aurretik ibiliko dira.

Bada desberdintasun handi bat, ordea, inongo mesederik egiten ez diona jarritako helburuei, bi datuk ematen dute arazoaren tamaina: Jaurlaritzak 2012an 130 milioi euro eskaini zion EITBri; herri ekimenekoei 5 milioi euro. Balorazio asko egin daitezke, baina bada ordua langile, audientzia eta bestelako parametroan adar bietan eman denaz hausnarketa egiteko, inbertsio publikoan ere nabaritu dadin. *El País* Espainiarentzat garrantzizua den moduan, euskal hedabideak ere euskal hiztunentzat eta Euskal Herriarentzat giltzarri direlako. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Besaro Landa Hotela

Bi gau
bi lagunentzat

Iratiko oihanaren sarreran
Irigoien, 5
Itzaltzu NAFARROA

www.besaro.es

1



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4



ARGIA KAMISETA

2 kamiseta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2376. Argia)

KAFE ANTZOKIA

- Luis Mari Ralla Arruti (Donostia)

AQUARIUM

- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)
- Andres Alberdi Gorostiaga (Elgoibar)
- Auro Ansorregi Altzibar (Mutriku)
- Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)

PLANETARIO

- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Eneko Maioz Ganboa (Orexa)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)

ARTIUM

- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Goloka (Bilbo)
- Leire Elizagarai Rodriguez (Gasteiz)

OKATXU

- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



Jolasen uztaila

ARGIA

Erosi jolas hezitzaileak euskaraz

www.argia.com/denda



Eskaintza berezia uztailaren 31 arte
beherapena jolas guztietan

10€ tan
jolas bakoitza

Harremana:

 **argia**

📞 943 37 15 45 · denda@argia.com

